

**AÑARBEKO UREN
MANKOMUNITATEA**

AURREKONTU OROKORRA

2022ko ekitaldi ekonomikoa

AURREKONTU OROKORRA 2022KO EKITALDIA

AURKIBIDEA

I.	Sarrera	1
II.	2022rako Aurrekontu Orokorraren edukia	1
	A) Añarbeko Uren Mankomunitatearen aurrekontu propioa	1
	B) Aguas del Añarbe–Añarbeko Urak, SA sozietate publikoaren aurrekontua	3
	1. Sarrera	3
	2. AUSAren aurrekontuaren edukia azaltzen duen memoria.....	3
	3. Kapitulukako laburpena.....	8
	4. Kontu-sailkako xehetasuna	9
	5. Konpromiso-kredituen xehetasuna.....	14
	6. Gastu arrunteko kapituluaren banakatzea jardueren arabera.....	15
	7. Inbertsioen eranskina	15
	7.1. Inbertsioak azpiegitura hidraulikoa zabaldu eta hobetzeko obra partekatuetan	16
	7.2. Inbertsioak AUMAren/AUSAren ekimeneko obra berrietan.....	17
	7.3. Zerbitzuak ustiatzeari lotutako inbertsioak	18
	7.4. Inbertsioak guztira	20
	7.5. Inbertsioen memoria.....	20
	7.6. Sarrera jakin batzuk gauzatzearen edo kostuetan aurreztearen mende dauden inbertsioak.....	38
	C) Aurrekontu bateratua	39
	D) AUSAren aurreikusitako kontuak	40
	E) GECASaren aurreikusitako kontuak eta aurrekontua	43
	F) Maileguen egoera	51
	G) Zorpetzearen eranskina	53
III.	Aurrekontu Orokorra egikaritzeko araua.....	54

AÑARBEKO UREN MANKOMUNITATEAREN AURREKONTU OROKORRA 2022KO EKITALDIRAKO

I. Sarrera

Dokumentazio honek Añarbeko Uren Mankomunitatearen 2022ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorra osatzen du, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak eskatzen duen dokumentazioarekin batera. Aurrekontu horrek, indarrean dagoen araudia betetzeko, barnean hartzen ditu Mankomunitatearen aurrekontu propioa eta Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, SA (AUSA) sozietate publikoarena. Izan ere, AUSA Mankomunitatea kudeatzeko organoa da 1995ean eratu zenetik. Halaber, Gestión de Centrales del Añarbe, SA (GECASA) sozietateari dagozkion aurreikuspenak biltzen dira. AUSAk % 70eko partaidetza dauka aipatutako sozietatean, eta Energiaren Euskal Erakundeak % 30ekoa.

II. 2022rako Aurrekontu Orokorren edukia

A) Añarbeko Uren Mankomunitatearen aurrekontu propioa

Añarbeko Uren Mankomunitatearen Aurrekontuak sarreraren eta gastuen egoera-orria, aurrerago zehaztuko dena, jasotzen du. Kudeaketarako Sozietate Anonimoa sortzeak eta Mankomunitatearen eta Sozietatearen arteko harremanak erregulatzen dituen hitzarmena aplikatzeak (hitzarmenak Sozietatearen esku uzten ditu 1995eko abenduaren 31ra arte Mankomunitateak ematen zituen zerbitzuak) hainbat aldaketa ekarri dituzte aurrekontuetan, eta aldaketa horiek eragina izan dute sarreretan eta gastuetan.

Aipatutako aurrekontua osatzen duten aurreikuspenak eta kredituak beren jatorri ekonomikoaren arabera antolatuta daude, indarrean dagoen aurrekontu-sailkapenari jarraituz.

SARREREN EGOERA-ORRIA		
Kapitulua / Kontu-saila	Izena	Zenbatekoa (€-tan)
3	Tasak eta bestelako sarrerak	10.001
399.01	Azpiegiturak finantzatzeko sarrerak	1
399.02	Beste zenbait sarrera	10.000
Sarreraren egoera-orria guztira		10.001

399.01 azpikontzeptua – Azpiegiturak finantzatzeko sarrerak: Sozietatetik jasotzen diren sarrerak —Mankomunitatearen eta hainbat erakunde publikoren artean hitzartutako azpiegitura-obrak finantzatzeko erabiliko direnak— erregistratzera zuzenduta dago.

399.02 azpikontzeptua – Beste zenbait sarrera: Askotariko sarrerak erregistratzera zuzenduta dago.

GASTUEN EGOERA-ORRIA		
Kapitulua / Kontu-saila	Izena	Zenbatekoa (€-tan)
2	Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	10.001
226.99	Beste zenbait gastu	10.000
227.99	Kanpoko beste lan batzuk	1
Gastuen egoera-orria guztira		10.001

226.99 azpikontzeptua – Beste zenbait gastu: Gastu arruntetatik datozen zenbait obligaziori erantzutera zuzendutako kreditua.

227.99 azpikontzeptua – Kanpoko beste lan batzuk: Azpiegitura-lanak finantzatzeko, hainbat erakunde publikorekin sinatutako hitzarmenen ondoriozko obligazioei erantzutera zuzendutako kreditua. Oso-osorik kudeaketa-sozietateari jasanarazten zaionez, zabalgarritzat hartzen da berariaz.

B) Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, SA sozietate publikoaren aurrekontua

1. Sarrera

Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, SA sozietate publikoa denez, aplikatzekoa den aurrekontu-araudiaren mende dago. Aipatutako araudia betetzeko, aurrekontuarekin batera, honako dokumentu hauek aurkezten dira:

- 2022ko abenduaren 31rako aurreikusitako balantzea
- 2022ko ekitaldirako aurreikusitako galera-irabazien kontua
- 2022ko ekitaldirako ondare garbian aurreikusitako aldaketen egoera-orria

Ondoren zehazten den aurrekontuan agertzen diren aurreikuspenek eta kredituek barne hartzen dituzte lehen mailako sarean ura hornitu, saneatu eta arazteko zerbitzugintzari lotutako aurreikuspenak eta kredituak.

2. AUSAren aurrekontuaren edukia azaltzen duen memoria

2022ko ekitaldi ekonomikorako aurreikusitako sarrera eta gastuen kontzeptu nagusiak azaltzen dira jarraian:

Zerbitzugintzaren ondoriozko sarrerak

Atal honek barne hartzen ditu Sozietateak emandako zerbitzuen ondorioz zenbatetsitako sarrerak, kontzeptu hauek direla eta:

Kontzeptua	Zenbatekoa (€-tan)
Hornidura	7.105.450
Saneamendua	6.527.125
Arazketa	5.855.741
Zerbitzugintzaren ondoriozko sarrerak guztira	19.488.316

Jakina denez, aurreko sarreren artean barne hartutako sarrera nagusia dator kide diren udalei lehen mailako sarean ura hornitzeko, saneatzeko eta arazteko zerbitzuak ematek.

Ildo horretatik, udalei zerbitzu horiek emateagatik aurreikusitako sarreren guztizkoa honela lortzen da: hornidura-kuota finkoa aplikatuzetik esleitutako emariari (2.200 l/s/urte); saneamendu- eta arazketa-kuota finkoak aplikatuzetik saneamendu unitarioa duen azalerari (1.504,18 ha); eta tarifaren kuota aldakorrek aplikatuzetik 2022an hornituko eta bildu eta araztuko direla zenbatetsitako ur bolumenei. Bolumen horiek, hurrenez hurren, 24,5 milioi m³ eta 25,8 milioi m³ dira (ikus "Tarifa-proposamenaren azterketa").

Kide diren udalentsako tarifaren laburpena honako hau da (BEZa kanpo):

Kontzeptua	Neurri-unitateak	Tarifa
Hornidura-tarifa:		
Kuota finkoa	€/l/s/urte	821,2550
Kuota aldakorra	€-zentimo hornitutako m ³ -ko	21,6273
Saneamendu-tarifa:		
Kuota finkoa	€ azalera urbanizatuko ha-ko	1.192,9244
Kuota aldakorra	€-zentimo bildutako m ³ -ko	14,2188
Arazketa-tarifa:		
Kuota finkoa	€ azalera urbanizatuko ha-ko	1.308,2118
Kuota aldakorra	€-zentimo bildutako m ³ -ko	11,0143
Inbertsioen finantzaketa	€ / l / s / urte	0,0000

Bestalde, gainerako sarrerak etxeokak ez diren erabiltzaile bereziei emandako saneamendu- eta arazketa-zerbitzuetatik datoz, eta bi mota hauetan sailkatzen dira:

- Batetik, Añarbeko saneamendu-sistema orokorretik datozenak: sarrerak kalkulatzeko, saneamendu eta arazketako termino aldakorrei —hurrenez hurren, 4,0 milioi m³-ri eta 8,6 milioi m³-ri aplikatzen zaienei— dagozkien termino finkoak gehitzen zaizkie: 287,2943 € eta 356,9472 € erabiltzaileak isuri dezakeen l/s bakoitzeko.
- Bestetik, Urumearen sistema erdi-autonomotik datozenak: sarrerak kalkulatu dira 6,6895 €-zentimo/m³-ko saneamenduko termino aldakor bat aplikatuta 6,3 milioi m³-tan zenbatetsitako bolumenari.

Langile-gastuak

Sozietateko langileen ordainsarien, enpresak ordaindu beharreko Gizarte Segurantzako kuoten eta beste zenbait gastu sozialen aurreikuspena.

AUSAren Hitzarmen Kolektiboak finkatzen badu ere langileen ordainsariak aldatu beharko direla Donostiako Udaleko langileenak aldatzen diren termino beretan, eta, hortaz, udal horretan horri buruz erabakitzen denari jarraitu beharko bazaio ere, 2022ko ekitaldirako langile-gastuen zenbatespenak egin dira % 1,0ko igoera aplikatuko dela suposatuta.

Halaber, kontuan hartu dira AUSAko plantillan txanda-kontratuak direla-eta dagoeneko egin diren eta datozen hilabeteetan egingo diren mugimenduen eragin ekonomikoak.

Azpiegiturak konpontzea, mantentzea eta kontserbatzea

Sozietatearen jabetzako ondasunetan edo Mankomunitatearen edo Sozietateari atxikitako udal mankomunatuen jabetzakoetan aurreikusitako ekintzetan zenbatetsitako kostua, ekintza horiek ondasunen bizitza erabilgarria luzatzen ez dutenean.

Energia-kontsumoa

Sozietateak kudeatzen dituen instalazioen energia-kontsumoek sortutako gastua adierazten da atal honetan. Instalazio horien artean nabarmentzen da Loiolako HUA, duen energia-kontsumo handiagatik.

Epigrafe honetan, 2022ko ekitaldirako, 2021erako aurrekontuan jasotakoa baino gastu-gehikuntza handiagoa espero da. Ildo horretatik, energia elektrikoaren gastuari dagozkion 2021eko ekitaldirako aurreikuspenak egiteko, 52 €/MWh-ko batez besteko merkatu-prezioa kontuan hartu zen. Hala ere, etengabe gora egiten ari den energia-merkatuaren bilakaerak behartu egin du 2022rako zenbatespenak 100 €/ MWh-tik gorako prezioarekin egitera. Horren ondorioz, kontzeptu horrengatik 2022an egindako gastu-aurreikuspena 2021erako egindakoa baino 1.363 mila € inguru handiagoa da (% 60tik gora).

Horrez gain, energia termikoaren kontsumoari dagokionez (AUSAk GECASA bere sozietate partaidetuari erosten dion energia, GECASAk merkatuko gas naturala une bakoitzean erosten duen prezioan), era berean, 2021erako aurreikusitakoa baino kostu askoz handiagoa espero da. Ildo horretatik, 2021erako aurreikuspenak egiteko gas naturalaren 16 €/MWh-ko batez besteko prezioa kontuan hartu bazen ere, 2022rako aurreikusitako batez besteko prezioa 43 €/MWh da. Alde horrek, 2022rako kontsumo-aurreikuspena kontuan hartuta, berekin ekarri du 2021erako aurreikusitakoa baino gastu 528 mila € handiagoa (% 83 inguru) zenbatestea kontzeptu hori dela eta.

Erreaktiboan eta laborategirako materialaren hornidura

Petritegiko EUTEan urtegitik datorren ur gordina tratatzen da, eta Loiolako HUA, berriz, saneamendu-sareetan bildutako ura. Atal honetan, tratamendu horietarako beharrezkoak diren erreaktibo eta produktu kimikoen hornikuntza-gastua adierazten da. Edateko uren eta hondakin-uren laborategietan beharrezko analisi klinikoak egiteko materiala eskuratzeko gastua ere jasotzen da.

Hori horrela, uraren arazketari dagokionez, 2021ean aluminio polikloruroa erabili ondoren lohi lehorrean ikusitako emaitzak kontuan izanda, komenigarritzat jo da erreaktibo hori arazketa-prozesuan ez sartzea. Horrek, gainerako erreaktiboan kontsumoan izandako zenbait aldaketarekin batera, 302 mila € inguru aurrezteka ekarriko du.

Aseguruak

Barne hartzen ditu, besteak beste, Sozietatearen erantzukizun zibileko eta ingurumen-erantzukizun zibileko kontingentziak eta kalte materialak estaltzeko kontratatutako polizen primak, bai beste erakunde batzuek atxikitako ondasunenak, bai Sozietatearenak. Era berean, Sozietatearen administratzaileen bizi-aseguruen eta erantzukizun zibileko aseguruaren polizetatik eratorritako gastuak biltzen ditu.

Tributuak

Sozietateak ordaindu behar dituen zerga-gastuak biltzen ditu atal honek. Horien artean, aipatzekoak dira, lehenik eta behin, azken ekitaldian ordaindu izan direnak: Uraren Euskal Agentziaren lehorretik itsasorako isurketen kanona, ekonomia-jardueren gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga, ibilgailuen zirkulazioaren gaineko zerga, etab.

Atal honetan nabarmendu behar da Euskal Autonomia Erkidegoko 2020ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 27ko 13/2019 Legeak (abenduaren 31ko «EHAA») uraren kanonaren erregulazioa aldatu zuela, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, eta, Añarberi dagokionez, honako berrikuntza hauek sartu zituela:

- Zergapeko egitatea izango zen edozein jatorritako uren ur-bilketatik datorren uraren erabilera edo kontsumoa (benetakoa edo potentziala). Aurreko erregulazioan, berriz, ezartzen zen zergapeko egitatea dela erabiltzaileari hornitutako ura kontsumitzea. Hau da, erabat aldatu zen kanonaren zentzua, eta azken erabiltzailearen kontsumoa zergapetzetik kontsumoa jatorrian zergapetzera pasatu zen.
- Karga-tasa 6 €-zentimo/m³ izatetik 3 €-zentimo/m³ izatera igaro zen.

Ikus daitekeenez, kanonaren erregulazio berriarekin, Añarbe pasatuko zen inolako zenbatekorik ez ordaintzetik kontzeptu horren ondorioz (2020 arte subjektu pasiboa uraren azken kontsumitzailea baitzen), 785 mila € inguru ordaintzera (izan ere, 2021etik aurrera, subjektu pasiboa izango zen ura jatorrian ateratzen zuena). Zenbateko hori Sozietateak 2021eko ekitaldirako aurreikusitako egoera-orrietan sartu zen.

Geroago, Euskal Autonomia Erkidegoko 2021. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen otsailaren 11ko 1/2021 Legeak aldatu egin zuen uraren kanonaren erregulazio berria indarrean jartzeko prozesua, eta 2022ko urtarrilaren 1era arte atzeratu zuen.

Hori horrela, jakin da URAk tarifa 2022tik aurrera mailaka sartu nahi duela; hala, urtarrilaren 1erako, tarifa 1 €-zentimo/m³ izan dadin, 2023rako 2 €-zentimo/m³ eta 2024rako 3 €-zentimo/m³.

2021erako aurreikuspenek 785 mila €-ko gastua aurreikusten zutenez kontzeptu horrengatik (3 zentimo/m³), gastu hori 511 mila € inguru murriztea aurreikusi da.

Beste enpresa batzuek egindako lanak

Funtsean, azpiegitura osatzen duten instalazioak ustiatu eta mantentzeko zerbitzuek sortzen dituzten gastuak biltzen ditu. Instalazio horien artean daude Añarbeko urtegia, EUTEa, biltegiak, ponpatze-estazioak, HUA, etab.

Ilido horretatik, 2020ko ekainaren 14an indarrean jarri zen AUSAk kudeatzen duen azpiegitura ustiatu eta mantentzeko egungo kontratua. Horren adjudikazioduna GOMENSL – ANSAREO INFRAESTRUCTURAS ABEEa izan zen.

Kontratu horrek ezartzen zuen, oro har, prezioa ez zela aldatuko prezioen indize orokorrekin izandako aldakuntzaren arabera. Horrez gain, kontratuan zehar, alde batetik, Loiolako HUAko sarbideak kontrolatzeko zerbitzua sartu zen (AUSAk Loiolako HUAren sarrera-portxeko obrak amaitu eta abian jarri ondoren zerbitzuak benetan ematen hasteko unean hasiko zen ordaintzen zerbitzu hori) eta, bestetik, 2021etik aurrera 3. mailako 2 ofizial kontratatu ziren saneamendu-arlorako. Bada, bi gertakari horien ondoriozko aldaketak jadanik 2021erako aurrekontuan sartu zirenez, 2022rako ez da espero aldaketa esanguratsurik epigrafe honetan.

Finantza-gastuak

Atal honek biltzen ditu indarrean dauden mailegu- eta kreditu-polizetan ezarritako klausulen arabera finantza-erakundeei ordainduko zaizkien finantza-gastuak. Horiei gehitzen zaizkio, hala dagokionean, aurrekontua egiten den ekitaldian denetariko inbertsioak finantzatzeko formalizatu behar diren maileguen interesak.

Inbertsioak

Gehitutako inbertsioen xedea da goi-hornidurako zerbitzuak egiteko hornidura- eta saneamendu-azpiegitura osoa modu egokian eraikitzea, kontserbatzea eta ustiatzea eta, dagokionean, handitzea. Ildo horretatik, dokumentu honen dagokion eranskinean xehetasun handiz azaltzen da 2022rako aurreikusitako jarduketaren helburua.

Zorpetze-amortizazioak

Atal honetan biltzen da inbertsioak finantzatzeko formalizatutako eta erabilitako mailegu-eragiketaren amortizazioetarako aurreikuspena.

3. Kapitulumakako laburpena

Sozietatearen aurrekontua osatzen duten aurreikuspenak eta kredituak beren jatorri ekonomikoaren arabera antolatuta daude, indarrean dagoen aurrekontu-sailkapenari jarraituz. Hona aurrekontuaren laburpena kapitulumak:

SARREREN EGOERA-ORRIA		
Kapitulua	Izena	Zenbatekoa (€-tan)
3	Tarifak eta bestelako sarrerak	20.358.203
5	Ondare-sarrerak	1.162.226
7	Kapital-transferentziak	672.340
8	Finantza-aktiboak	1.638.930
9	Finantza-pasiboak	1.895.551
Sarrerren egoera-orria guztira		25.727.250

GASTUEN EGOERA-ORRIA		
Kapitulua	Izena	Zenbatekoa (€-tan)
1	Langile-gastuak	2.425.300
2	Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	13.558.548
3	Finantza-gastuak	18.874
6	Inbertsio errealak	9.404.978
9	Finantza-pasiboak	319.550
Gastuen egoera-orria guztira		25.727.250

4. Kontu-sailkako xehetasuna

SARREREN EGOERA-ORRIA		
Kontu-saila	Izena	Zenbatekoa (€-tan)
300.00	Lohi lehorraren salmenta	60.000
300.01	Biogas-salmenta	550.105
310.02	Etxekoak ez diren erabiltzaile bereziei saneamendu-zerbitzua ematea	1.064.302
310.02	Etxekoak ez diren erabiltzaile bereziei arazketa-zerbitzua ematea	1.046.266
343.01	Udalei hornidura-zerbitzuak ematea	7.105.450
343.02	Udalei saneamendu-zerbitzuak ematea	5.462.823
343.03	Udalei arazketa-zerbitzuak ematea	4.809.475
399.01	Bestelako sarrerak	259.782
III. kapitulua guztira		20.358.203
531.00	GECASAREN dibidenduak	1.100.000
540.00	Alokairuak	62.226
V. kapitulua guztira		1.162.226
722.00	Urnietako Udala: Urnietako hiri-sektoreak Añarbeko sistemaren ur-horniduran sartzea	322.340
771.00	Oiartzun ibaiaren eskuinaldeko kolektore unitarioa egikaritzeko konpentsazio-batzordea	300.000
771.01	PGZ: ZPLH – Zikuñaga paper-fabrikaren lurreko hustubide berria eraikitzeke lurzoruaren kudeaketa	50.000
VII. kapitulua guztira		672.340
880.00	Aurrekontua berdintzeko eragiketak	1.638.930
VIII. kapitulua guztira		1.638.930
933.00	Tokiko sektore publikotik kanpo jasotako epe luzeko maileguak	1.895.551
IX. kapitulua guztira		1.895.551
Sarrerren egoera-orria guztira		25.727.250

GASTUEN EGOERA-ORRIA		
Kontu-saila	Izena	Zenbatekoa (€-tan)
130.00	Langile lan-kontratudunak	1.911.947
160.01	Gizarte Segurantzako kuotak	477.710
160.04	Geroa kuotak	28.571
160.05	Laguntza mediko-farmazeutikoa	2.808
163.05	Bestelako gastu sozialak	4.264
I. kapitulua		2.425.300
20	Alokairuak	
202.00	Birmineralizazio-zisternak	31.394
21	Konponketak, mantentze-lanak eta kontserbazioa (KMK)	
212.00	Makinen, instalazioen eta tresnen KMK	853.522
213.00	Garraio-materialaren KMK	7.500
22	Materiala, hornigaiak eta bestelakoak	
220.01	Bulegoko materiala, inbentarioan sar ez daitekeena	19.000
220.02	Prentsa, aldizkariak, liburuak eta bestelako argitalpenak	16.350
221.01	Energia elektrikoa	3.629.155
221.02	Ura	52.488
221.03	Energia termikoa	1.159.913
221.04	Erregaiak eta karburagaiak	9.000
221.09	Garbiketako eta garbitasuneko produktuak	500
221.98	Bestelako hornigaiak – Erreaktiboak	750.000
221.99	Bestelako hornigaiak – Laborategiko materiala	230.000
222.00	Komunikazioak	78.572
224.02	Ibilgailuen aseguru-primak	7.448

GASTUEN EGOERA-ORRIA		
Kontu-saila	Izena	Zenbatekoa (€-tan)
224.03	Kudeatutako azpiegituren aseguru-primak	127.502
224.99	Bestelako arriskuak	47.159
225.01	Udal-tributuak	58.871
225.02	Lurralde Historikoko tributuak	8.000
225.03	Erkidegoko tributuak	385.849
225.04	Estatuko tributuak	85.095
226.03	Argitalpenak, publizitatea eta propaganda	54.000
226.04	Gastu juridikoak	90.000
226.99	Beste zenbait gastu	280.111
227.01	Garbiketa	28.735
227.07	Azterketa eta lan teknikoak	251.108
227.99	Azpiegiturak ustiatzeko eta mantentzeko kontrata	5.266.002
23	Zerbitzugintzaren ondoriozko kalte-ordainak	
230.00	Langileen dietak, lokomozioa eta joan-etorriak	28.294
231.00	Kontseiluaren eta Batzordearen dietak eta gastuak	2.980
II. kapitulua guztira		13.558.548
312.01	Epe luzeko zorraren interesak	18.874
III. kapitulua guztira		18.874
62	Inbertsioak azpiegituretan	
	Inbertsioak azpiegitura hidraulikoa zabaldu eta hobetzeko obra partekatuetan	
629.01	Urnietako hiri-sektoreak Añarbeko sistemaren ur-horniduran sartzea (1)	690.435
629.02	Papresa paper-fabrikako lurreko hustubidea (PPLH) eraikitzea	1.000.000
629.03	Usurbilgo Aginaga auzoko saneamendu-obrak – 1. eta 2. faseak	903.925

GASTUEN EGOERA-ORRIA		
Kontu-saila	Izena	Zenbatekoa (€-tan)
629.04	Gainezkabidea birmoldatzeko eta deskonexioak egiteko obrak Pasaiako badiaren ingurunean (Donostia)	175.000
629.05	Anoetako ibarraren saneamendua – 1. fasea	300.000
629.06	OIEKU – Oiartzun ibaiaren eskuinaldeko kolektore unitarioaren saneamendua	600.000
629.07	Ibaetako HUPEaren bulkada-hodia luzatzea	232.867
	Inbertsioak Mankomunitatearen/AUSAren ekimeneko obra berrietan	
629.08	AHIBEP – Hornidura-azpiegiturak birgaitzea	150.000
629.09	AHIBEP – Hornidura-azpiegiturak birgaitzea: Alabergako EUBBaren hodian irteera aldatzea	74.252
629.10	Lezoko udalerrirako uraren goi-hornidurako sistema hobetzea (1)	1.000.000
629.11	Añarbeko presaren Larrialdietako Plana ezartzea	75.681
629.12	AHIBEP – Saneamendu-azpiegiturak birgaitzea	150.000
629.13	AHIBEP – Saneamendu-azpiegiturak birgaitzea: Birgaitzeko obrak, ponpatze-ganberaren haustura, iriste-obra, Loiolako HUAN	145.000
629.14	SCADAko zentroa eraberritzeko obrak Errotaburun	20.000
629.15	Hornidura-obra txikiak	25.000
629.16	Saneamendu-obra txikiak	25.000
629.17	Hornidura-obretan laneko segurtasuna eta osasuna koordinatzeko laguntza teknikoa	25.000
629.18	Hornidurako azterketak eta proiektuak idaztea	335.040
629.19	Saneamendu-obretan laneko segurtasuna eta osasuna koordinatzeko laguntza teknikoa	25.000
629.20	Saneamenduko azterketak eta proiektuak idaztea	186.571
629.21	Askotariko obrak egiteko lurzorua kudeaketa	496.347

GASTUEN EGOERA-ORRIA		
Kontu-saila	Izena	Zenbatekoa (€-tan)
	Zerbitzuak ustiatzeari lotutako inbertsioak	
629.91	Inbertsioak Hornidura Ustiatzeko Arloan	531.495
629.92	Inbertsioak Administrazio Arloan	204.765
629.93	Inbertsioak Kalitatea Kontrolatzeko Arloan	97.905
629.94	Inbertsioak Saneamendua Ustiatzeko Arloan	1.935.695
VI. kapitulua guztira		9.404.978
933.00	Barnekoak, sektore publikotik kanpo	319.550
IX. kapitulua guztira		319.550
Gastuen egoera-orria guztira		25.727.250

5. Konpromiso-kredituen xehetasuna (zenbatekoak €-tan)

Deskribapena	21.12.31ra arte aurreikusitako egikaritzea	2022rako aurreikusitako txertaketa	Ekitaldiko aurrekontua			
			2022	2023	2024	2025
Papresa paper-fabrikako lurreko hustubidearen (PPLH) obrak	0	1.000.000	0	1.300.000	700.000	0
Usurbilgo Aginaga auzoko saneamendu-obrak – 1. eta 2. faseak (1)	110.193	289.807	614.118	521.206	0	0
Pasai Donibaneko saneamendua (1)	0	0	0	100.000	400.000	0
Gainezkabideak birmoldatzeko eta deskonexioak egiteko obrak Pasaiaiko Badiaren ingurunean (Donostia) (1)	0	25.000	150.000	300.000	200.000	0
Urnietako hiri-sektoreak Añarbeko sistemaren ur-horniduran sartzea (1)	28.189	690.435	0	1.000.000	800.000	0
Lezo udalerriko homidura-sistema hobetzea (1)	0	150.000	850.000	300.000	1.400.000	400.000
Anoetako ibarraren saneamendua – 1. fasea (1)	0	25.000	275.000	500.000	401.060	0
Hernaniko udalerria urez hornitzeko sistema hobetzea	0	0	0	500.000	500.000	400.000
Oiartzun ibaiaren eskuinaldeko kolektore unitarioa	0	0	600.000	800.000	600.000	0
Konpromiso-kredituak guztira	138.382	2.180.242	2.489.118	5.321.206	5.001.060	800.000
Kanpoko finantzaketa (OIEKU)			300.000	400.000	300.000	0
Kanpoko finantzaketarik gabeko konpromisoak	138.382	2.180.242	2.189.118	4.921.206	4.700.060	800.000
2020ko sarrera arrunten gaineko % (19.686.462 €)				% 24	% 24	% 4

(1) Zenbait erakunderekin batera finantzatzeko jarduketak. Taula honetan ageri diren zenbatekoak AUSAren ekarpenei dagozkie.

6. Gastu arrunteko kapituluaren banakatzea jardueren arabera

Kapitulua	HO	SA	AR	Guztira
Langile-gastuak	1.017.739	869.865	537.696	2.425.300
Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	3.852.224	2.767.109	6.939.215	13.558.548
-Alokairuak	31.394	0	0	31.394
-Konponketak eta mantentze-lanak	196.004	266.695	398.323	861.022
-Hornidurak	1.131.955	737.707	3.996.744	5.866.406
-Komunikazioak	27.768	30.958	19.846	78.572
-Aseguru-primak	59.035	65.124	57.950	182.109
-Tributuak	335.197	171.784	30.834	537.815
-Askotariko gastuak	93.706	105.488	224.917	424.111
-Beste enpresa batzuek egindako lanak (kontrata)	1.827.675	1.306.810	2.131.517	5.266.002
-Beste enpresa batzuek egindako lanak	138.249	70.593	71.001	279.843
-Kontseilua eta langileen dietak eta gastuak	11.241	11.950	8.083	31.274
Finantza-gastuak	6.767	7.123	4.984	18.874
Guztira	4.876.730	3.644.097	7.481.895	16.002.722

7. Inbertsioen eranskina

AUSAREN eginkizunetako bat da beharrezko inbertsioak egitea Mankomunitateak emakida-titulua onduz bere esku dituen baliabide hidraulikoen erabilera eraginkor eta egokiena bermatzeko. Horretarako, bere ardurako eta beharrezkotzat jotzen diren hornidura- eta saneamendu-azpiegitura guztien eraikuntza, mantentze eta ustiatze proposa bermatuko du eta inbertsioak egingo ditu ere edateko ura hornitzeko eta hondakin- eta euri-uren goi-saneamenduko zerbitzua ahalik eta baldintza onenetan eman dadin, ingurumenaren eta Mankomunitatea osatzen duten hamar udalerrietako biztanleen beharren mesedetan.

Hala, azken urteotan egin diren eta datorren 2022. urtean ere errepikatuko diren inbertsioen xedea da, batik bat, Mankomunitatearen/AUSAREN titulartasuneko goi-hornidurako eta goi-saneamenduko azpiegitura hidraulikoa zabaltzea, modernizatzea, birgaitzea eta hobetzea.

Gauzak horrela, 2022ko ekitaldirako aurreikusitako inbertsioak ikus daitezke jarraian. Inbertsio horiek barne hartzen dituzte jarduketak berriak zein 2021eko aurrekontuan dagoeneko jasota dauden eta beren egikaritzea 2022ko ekitaldira luzatua izango duten jarduketak (zenbateko guztiak €-tan daude, BEZA kanpo):

7.1. Inbertsioak azpiegitura hidraulikoa zabaldu eta hobetzeko obra partekatuetan

Jarduketa	Zenbatekoa (BEZa kanpo)		
	2021eko aurrekontua	2022	Guztira
1 Hornidurako jarduketa partekatuak	690.435	0	690.435
Urnietako hiri-sektoreak Añarbeko sistemaren ur-horniduran sartzea (1)	690.435	0	690.435
2 Saneamenduko jarduketa partekatuak	1.339.807	1.871.985	3.211.792
Papresa paper-fabrikako lurreko hustubidea (PPLH) eraikitzea (3)	1.000.000	0	1.000.000
Usurbilgo Aginaga auzoko saneamendu-obrak – 1. eta 2. faseak (4)	289.807	614.118	903.925
Gainezkabidea birmoldatzeko eta deskonexioak egiteko obrak Pasaiaiko badiaren ingurunean (Donostia) (6)	25.000	150.000	175.000
Anoetako ibarraren saneamendua – 1. fasea (7)	25.000	275.000	300.000
OIEKU – Oiartzun ibaiaren eskuinaldeko kolektore unitarioaren saneamendua (8)	0	600.000	600.000
Ibaetako HUPEaren bulkada-hodia luzatzea	0	232.867	232.867
Partekatutako obrak guztira	2.030.242	1.871.985	3.902.227

(1) Jarduketak 1.800.000 € gehiago beharko ditu 2023 eta 2024 bitartean

(2) Jarduketak 1.400.000 € gehiago beharko ditu 2023 eta 2025 bitartean

(3) Jarduketak 2.000.000 € gehiago beharko ditu 2023 eta 2024 bitartean

(4) Jarduketak 521.206 € gehiago beharko ditu 2023an

(5) Jarduketak 500.000 € gehiago beharko ditu 2023 eta 2024 bitartean

(6) Jarduketak 500.000 € gehiago beharko ditu 2023 eta 2024 bitartean

(7) Jarduketak 901.060 € gehiago beharko ditu 2023 eta 2024 bitartean

(8) Jarduketak 1.400.000 € gehiago beharko ditu 2023 eta 2024 bitartean. Unitateko Konpentsazio Batzordeak inbertsioaren % 50eko ekarpena egitea aurreikusita dago

(9) Taula honetan jasotako zenbatekoak, " OIEKU – Oiartzun ibaiaren eskuinaldeko kolektore unitarioaren saneamendua" jarduketarako izan ezik, AUSAren ekarpenei dagozkie

7.2. Inbertsioak Mankomunitatearen/AUSAren ekimeneko obra berrietan

Jarduketa	Zenbatekoa (BEZa kanpo)		
	2021eko aurrekontua	2022	Guztira
1 Hornidura	225.681	1.074.252	1.299.933
1.1 AHIBEP – Azpiegitura hidraulikoa berritzatzeko plana garatzeko jarduketak	0	224.252	224.252
AHIBEP – Hornidura-azpiegiturak birgaitzea	0	150.000	150.000
AHIBEP – Hornidura-azpiegiturak birgaitzea: Alabergako EUBBaren hodien irteera aldatzea	0	74.252	74.252
1.2 1.2. Bestelako jarduketak	225.681	850.000	1.075.681
Lezoko udalerrirako uraren goi-hornidurako sistema hobetzea (1)	150.000	850.000	1.000.000
Añarbeko presaren Larrialdietako Plana ezartzea	75.681	0	75.681
2 Saneamendua	0	315.000	315.000
2.1 AHIBEP – Azpiegitura hidraulikoa berritzatzeko plana garatzeko jarduketak	0	295.000	295.000
AHIBEP – Saneamendu-azpiegiturak birgaitzea	0	150.000	150.000
AHIBEP – Saneamendu-azpiegiturak birgaitzea: Birgaitzeko obrak, ponpatze-ganberaren haustura, iriste-obra, Loiolako HUAN	0	145.000	145.000
2.2 Bestelako jarduketak	0	20.000	20.000
SCADAko zentroa eraberritzeko obrak Errotaburur	0	20.000	20.000
3 Obra txikiak	0	50.000	50.000
3.1 Hornidura	0	25.000	25.000
3.2 Saneamendua	0	25.000	25.000
4 Azterlanak, proiektuak eta bestelakoak idaztea	109.070	462.541	571.611
4.1 Hornidura	99.070	260.970	360.040
HOKo obretan laneko segurtasuna eta osasuna koordinatzeko laguntza teknikoa	0	25.000	25.000
2022-23 proiektu-zorrotza	0	25.000	25.000
Behoko Kanala birgaitzeko alternatibak aztertzea	0	100.000	100.000
Hernaniko udalerrirako uraren goi-hornidura emateko sistema hobetzea	0	90.000	90.000
Lezoko udalerrirako uraren hornidura-sistema hobetzea	73.000	0	73.000
Santa Barbarako EUBBtik Hernanirako hornidura optimizatzeko sistamarako proiektua	26.070	0	26.070
Lastaolako UGParen proiektu arkitektonikoa birmoldatzea (Beheko Kanalerako alternatiba)	0	20.970	20.970
4.2 Saneamendua	10.000	201.571	211.571
SAko obretan laneko segurtasuna eta osasuna koordinatzeko laguntza teknikoa	0	25.000	25.000
2022-23 proiektu-zorrotza	0	25.000	25.000
OIEKUa egikaritzeko proiektua	0	88.771	88.771
Ibaetako HUPEaren bulkada handitzeko proiektua	0	45.960	45.960
Lastaolako sifoiak aldatzeko edo ezabatze proiektua	0	14.840	14.840
Gainezkabidea birmoldatzeko eta deskonexioak egiteko obrak Pasaiaiko badiaren ingurunean: Trintxerpe, Gomistegi eta Bidebieta	10.000	0	10.000
Goi-saneamendurako Plan Zuzentzailea	0	2.000	2.000
5 Obrak egikaritzeko lurzoruaren kudeaketa	264.275	232.072	496.347
Askotariko obrak egiteko lurzoruaren kudeaketa	0	10.000	10.000
Urnieta hornitzeko lurzoruaren kudeaketa	264.275	71.272	335.547
Lezo hornitzeko lurzoruaren kudeaketa	0	50.000	50.000
Hernani hornitzeko lurzoruaren kudeaketa	0	50.000	50.000
ZPLH berrirako lurzoruaren kudeaketa	0	50.000	50.000
Aginaga saneatzeko lurzoruaren kudeaketa	0	800	800
Mankomunitatearen/AUSAren obra berriak guztira	599.026	2.133.865	2.732.891

(1) Jarduketak 3.000.000 € gehiago beharko ditu 2022 eta 2025 bitartean.

7.3. Zerbitzuak ustiatzeari lotutako inbertsioak

Jarduketa	Zenbatekoa (BEZa kanpo)		
	2021eko aurrekontua	2022	Guztira
1 Hornidura Arloa	26.495	505.000	531.495
1.1 Hornidura-azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: EUTE	14.500	180.000	194.500
Laneko segurtasun eta osasunerako ekipo eta sistemak	0	10.000	10.000
Prozesua kontrolatzeko ekipo eta sistemak	0	5.000	5.000

EUTEa birmoldatzeko alternatiben azterketa	14.500	0	14.500
EUTEko instalazioaren bypass orokorra birgaitzea	0	60.000	60.000
Hornidura-uren korrosio-ahalmenari buruzko azterketa	0	40.000	40.000
Birmineralizazioa, disolbaezinak eta erreaktiboak kontrolatzeko armairuetan zaharkituta dauden PLCak ordezkatzeta	0	50.000	50.000
Petritigiko ozonizazio- eta iragazketa-sistema hobetzeko proiektua idaztea	0	15.000	15.000
1.2 Hornidura-azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: sareak	11.995	250.000	261.995
Landa-zonako sarearen muga-puntuetan kutxatilkak egikaritzea eta emari-neurgailuak jartzea	0	84.000	84.000
Ponpa berriak Usurbilgo EUPerako	0	50.000	50.000
Urnietako ur-bilketaak erregularizatu eta hobetzeko obrak	0	40.000	40.000
Ponpa berriak Altzako EUPerako	0	36.000	36.000
Instalazioen lur-harguneak hobetzea (Arranbide, Elordin, Zubieta, Lizarratxope eta Armuntto)	0	30.000	30.000
Beheko Kanalean maila kontrolatzeko sistema aztertzea	11.995	0	11.995
Altzako EUPean ekipo elektrogenoaren gasak husteko gailu bat instalatzea	0	10.000	10.000
1.3 Hornidura-azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: Añarbeko presa	0	75.000	75.000
Ezkerreko azpialdeko hustubidearen hodi behartuaren azpiegitura-osotasuna analizatzea eta Riko hodia eta balbula hobetzeko lanak egitea	0	75.000	75.000
2 Administrazio Arloa	104.765	100.000	204.765
Enpresa-kudeaketako taldeak	104.765	0	104.765
HO eta SA arloetan zibersegurtasun-sistema ezartzea	0	50.000	50.000
Ekipo informatikoak	0	20.000	20.000
Azpiegitura sentikorrek babesteko planak egitea eta ezartzea	0	15.000	15.000
Inbertsioak komunikazioan (webgunea eta beste batzuk)	0	10.000	10.000
Altzariak, tresnak eta beharrezko beste gauza batzuk erostea	0	5.000	5.000
3 Kalitatea Kontrolatzeko Arloa	0	97.905	97.905
3.1 Edateko uren laborategirako material eta ekipoak erostea	0	62.905	62.905
Askotariko ekipoak eskuratzea	0	5.000	5.000
CG-MS eskuratzea	0	57.905	57.905
3.2 Hondakin-uren laborategirako material eta ekipoak erostea	0	35.000	35.000
Askotariko ekipoak eskuratzea	0	5.000	5.000
Laginak digeritzeko mikrouhin-ekipo bat eskuratzea	0	30.000	30.000
4 Saneamendu Arloa	73.675	1.862.020	1.935.695
4.1 Saneamendu-azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: HUA	73.675	1.322.020	1.395.695
Lehorketa termikoko bahe birakaria ordezkatzeta	0	750.000	750.000
SCADA kudeatzeko plan estrategikoa	0	167.020	167.020
Lodigailuen eragingailuak ordezkatzeta	0	90.000	90.000
Dekantazioko lohi-mailaren neurgailuak	0	66.000	66.000
Iriste-obran erreaktiboan biltegiak handitzeko obra	0	60.000	60.000
Lehorketa termikoko errota ordezkatzeta	55.000	0	55.000
Dekantagailuen eta lodigailuaren simulazio hidraulikoko azterketak	0	52.000	52.000
HUAko AHIBEP digestorea	0	45.000	45.000
Loiolako HUAko dokumentazio elektrikoa Eplan-en digitalizatzea (II. fasea)	0	30.000	30.000
Loiolako HUAko biologikoaren funtzionamenduari buruzko azterketak	0	30.000	30.000
HUAan azaleratzen diren kutsatzaileen eta mikroplastikoen presentziari eta horiek ezabatzeari buruzko azterketa analitikoa	0	20.000	20.000
Biltegitratze-siloetarako hautsa xurgatzeko sistema bat hornitzea eta instalatzea	18.675	0	18.675
HUAko zenbait eraikinetako konfinamenduari, fokalizazioari eta desodorizazioari buruzko azterketa	0	12.000	12.000
4.2 Saneamendu-azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: sareak	0	540.000	540.000
Santa Katalinako HUPeA hobetzeko obrak	0	345.000	345.000
Saneamendu-sareetan itsas intrusioa murrizteko neurriak ezartzea	0	100.000	100.000
Itsas uraren intrusioari buruzko azterketa monitorizazio bidez	0	65.000	65.000
Laneko segurtasun eta osasunerako ekipo eta sistemak	0	30.000	30.000
Zerbitzuak ustiatzeari lotutako inbertsioak guztira	204.935	2.564.925	2.769.860

7.4. Inbertsioak guztira

Inbertsio mota	Zenbatekoa (BEZa kanpo)		
	2021eko aurrekontua	2022	Guztira
Inbertsioak azpiegitura zabaldu eta hobetzeko obra partekatuetan	2.030.242	1.871.985	3.902.227
Mankomunitatearen/AUSAren obra berriak	599.026	2.133.865	2.732.891
Zerbitzuak ustiatzeari lotutako inbertsioak	204.935	2.564.925	2.769.860
Guztira	2.834.203	6.570.775	9.404.978

7.5. Inbertsioen memoria

7.5.1 Inbertsioak azpiegitura hidraulikoa zabaldu eta hobetzeko obra partekatuetan

* Urnietako hiri-sektoreak Añarbeko sistemaren ur-horniduran sartzea

Jarduketa honen helburua da, gaur egun sistema propioen bidez hornitzen diren Urnietako zonak —horretarako, udalerriko ur-harguneak eta Oiamar, Goikoetxe, Armuntto eta Lizarratxoeko biltegiak erabiltzen dira— Añarbe sistematik datorren uraz hornitzea.

Proiektua administrazio-tramitazioaren fasean dagoenez, aurreikusi da hura 2022ko lehen seihilekoan lizitatzea eta bigarren seihilekorako gauzatzen hastea.

Obren osotasunak inbertsio handia eskatzen duenez —3.300.000 € ingurukoa izango da—, jarduketa hau 690.435 €-rekin zuzkitu da 2022rako, eta beste 1.800.000 €-rekin 2023-24 aldirako. Gainerakoa, GFAREN ekarpenekin finantzatuko dela aurreikusi da.

* Papresa paper-fabrikako lurreko hustubidea (PPLH) eraikitzea

Proiektu honek lurreko hustubide bat eraikitzeko beharrezkoak diren jarduketak zehazten ditu PAPRESA paper-fabrikak sortutako efluentek itsasotik bereiz garraiatu ahal izateko. Efluentek, hasiera batean, Oartzun ibaiaren eskuineko ertzetik joango dira, ondoren Pasaiaiko portua zeharkatuko dute, Herrerako geltokitik igaroz, eta, azkenik, Herrera-Loiola trenbide-tunelean zehar joango dira, Monpaseko lurreko hustubidearen karga-ganberara iritsi arte. Bertatik itsasorako bidetara jarraituko diote Loiolako HUAren efluentearekin batera. Horrela, efluentek HUAtik igarotzea saihesten da, eta, beraz, haren gaineko eraginak.

Planteamendu horrek eskatuko du aipatutako enpresak bere efluentek araztea ditu bere faktorian bertan, horrela, ingurumen-agintaritzak eskudunak eskatutako mailak betetzeko. Hori guztia gauzatzeko baldintzak 2019ko apirilaren 29an horretarako sinatutako hitzarmenean berretsi ziren.

AUSAko Administrazio Kontseiluak 2019ko uztailaren 24an onartu zuen hasieran PPLHaren lizitazioa. Ondoren, espedientearen ingurumen-tramitazioa osatze aldera, AUSAko Kontseiluak lizitazioan atzera egitea onartu zuen.

Gaur egun, proiektua tramitazio administratiboko fasean dagoenez portuko agintaritzan (dagokion emakida administratiboa aldatzeko), aurreikusita dago 2022. urtearen hasiera aldean lizitatzea eta lehen seihilekoan gauzatzen hastea.

Jarduketa honek 1.000.000 €-ko zuzkidura du 2022rako, eta beste 2.000.000 €-koa 2023-24 aldirako.

*** Finantzaketa partekatua duten bestelako jarduketak**

Badira sinatu diren eta aurki hainbat erakunderekin sinatzekoak diren hitzarmenetan jasotako jarduketa batzuk.

Honako hau da jarduketa horietarako 2022rako aurreikusi diren zuzkiduren banakatzea (horien zenbatekoa 2.211.792 € da guztira):

Jarduketa	Zenbatekoa
Usurbilgo Aginaga auzoko saneamendu-obrak	903.925 €
Gainezkabidea birmoldatzeko eta deskonexioak egiteko obrak Pasaiako badiaren ingurunean (Donostia)	175.000 €
Anoetako ibarraren saneamendu-obrak – 1. fasea	300.000 €
OIEKU – Oiartzun ibaiaren eskuinaldeko kolektore unitarioaren saneamendua - 1. fasea	600.000 €
Ibaetako HUPEaren bulkada-hodia luzatzea	232.867 €

Dokumentu honen 5. atalean ikus daitekeenez, jarduketa hauei lotutako aurrekontu-esleipenak aurreikusi dira ere 2023ko eta ondorengo ekitaldietarako (3.822.266 €-ko zenbatekoaz, guztira):

Jarduketa	Zenbatekoa
Usurbilgo Aginaga auzoko saneamendu-obrak	521.206 €
Pasai Donibaneren saneamendua	500.000 €
Gainezkabidea birmoldatzeko eta deskonexioak egiteko obrak Pasaiako badiaren ingurunean (Donostia)	500.000 €
Anoetako ibarraren saneamendu-obrak - 1. fasea	901.060 €
OIEKU – Oiartzun ibaiaren eskuinaldeko kolektore unitarioaren saneamendua - 1. fasea	1.400.000 €

7.5.2 Inbertsioak Mankomunitatearen/AUSAren ekimeneko obra berrietan

Hornidura

AHIBEP – Azpiegitura hidraulikoa berriztatzeko plana garatzeko jarduketak

Jarduketa hauek berebiziko garrantzia dute azpiegituren balio-bizitza luzatzeko beren funtzionamendu-baldintza egokiak mantendu eta denboraren iragaitearen ondoriozko narriadura eta, azken batean, saihestezina den haien higadurari lotutako galmena saihesten baitute.

150.000 € emango dira hornidura-eremuan azpiegitura hidraulikoak birgaitzeko askotariko jarduketatarako.

AHIBEPa garatzeko jarduketak – Alabergako EUBBko hodian irteera aldatzea

2021ean, Alabergako EUBBko hodian irteera aldatzeko obrak hasi dira. Obra horiek sortaka esleitu dira (galdaragintza, obra zibila), guztira 403.894 €-ko zenbatekoaz, eta 2022ko lehen seihilekoan amaitzea aurreikusi da. Hortaz, 74.252 €-ko zuzkidura egingo da datorren urterako.

Bestelako jarduketak

*** Lezoko udalerriko uraren hornidura-sistema hobetzea**

Jarduketa honen xedea da egun Lezoko Udalak kudeatzen dituen tokiko zenbait hornidura-sistema (Amesti, Monatxo, Elortegi eta Arriandi) Añarbeko sistemaren (Petritegiko EUTEa – Darietako EUBBa) bitartez hornitzeko aukera izateko beharrezkoak diren lanak zehaztea.

Jarduketa honetarako zuzkidura 1.000.000 €-koa da datorren 2022ko ekitaldirako, eta beste 2.100.000 €-koa 2023-2025 aldirako.

*** Añarbeko presaren larrialdietako plana ezartzea**

Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren Presa eta Urtegien Segurtasunari buruzko Erregelamendu Teknikoa betez, Añarbeko Presaren Larrialdietako Plana ezarri beharra dago. Ministerioak 2019. urtean onartu zuen plana, tramitazio-prozesu luze baten ondoren. Hori dela eta, planean ezarritakoa garatzeko, bertan jasota eta 2021ean zehar esleitura dauden obra eta proposamenak amaitu behar dira.

Jarduketaren zenbatekoa 75.681 € da.

Saneamendua

AHIBEP – Azpiegitura hidraulikoa berriztatzeko plana garatzeko jarduketak

Arestian aipatu bezala, jarduketa hauek berebiziko garrantzia dute hornidurako zein saneamenduko azpiegituren balio-bizitza luzatzeko. Saneamenduko azpiegituren kasuan, besteak beste, honako obra hauek adjudikatzea aurreikusi da:

150.000 €-ko zuzkidura ezarri da askotariko jarduketa batzuetarako, eta 145.000 €-koa jarduketa zehatz hauetarako:

* **Birgaitzeko obrak, Loiolako HUAko iriste-obrako ponpaketaren haustura-ganberan**

Azpiegitura hidraulikoek asko sufritzen dute, batez ere hondakin-uren eta horiek sortutako gasen eraso kimikoagatik.

Bada, gas horietako batek, hidrogeno sulfuroak, HUAren azpiegiturak osatzen dituzten hormigoiairen eta altzairuaren korrosioa eta narriadura sortzen du.

Egoera horren aurrean, kalte handiena jasan duen eremu batean, hau da, iriste-obrako ponpaketaren haustura-ganberan, beharrezkoa da barruti horretako hormigoizko paramentuak konpondu eta babestea.

Jarduketarako 145.000 €-ko zuzkidura ezarri da.

Bestelako jarduketak

* **SCADAko zentroa eraberritzeko obrak Errotaburun**

AUSAren instalazioetan zuntz optikoa ezartzeko politikaren barruan eta segurtasun integraleko politikaren harira, aurreikusi da AUSAko azpiegituren kontrol-zentroak zuntz optikoaren bidez bateratzeko aukera, Errotaburun kokatutako zerbitzari propioen kontrol-zentro batekin. Horrek independentzia handiagoa ekarriko luke zerbitzu informatikoen kudeaketan, baita aurrezpen ekonomikoa ere, zenbait zerbitzu (kudeaketa ekonomikoa, etab.) "hodeian" eduki beharrik ez legokeelako.

Aldez aurreko urrats gisa, Errotaburuko 2. solairuan espazio bat jarri nahi da ekipo berri guztiak kokatzeko, eta behar bezala egokitu beharko da klimatizazio propioarekin eta elektrizitate-zerbitzu independenteekin.

Jarduketarako 20.000 €-ko zuzkidura ezarri da 2022rako.

Hornidura eta saneamenduko obra txikiak

Esperientziak erakutsi digu urtero zenbait jarduketa txiki gauzatzeko beharra sortzen dela, eta premia askotan. Jarduketa horiek, beren tamaina eta izaera ikusita, Añarbeko Urak erakundeko talde teknikoak erabakitzen ditu zuzenean, eta bidezkoa da aurrekontu-sail bat aurreikustea obra txiki horiek gauzatzeko, behar izanez gero. Horretarako, obra txikien atal bat ireki behar da, oraingoan aurrekontu txikiagoa izango duena, oro har dauden aurrekontu-murrizketak direla eta.

2022ko ekitaldirako, jarduketa horietarako (hornidura eta saneamendua) 25.000 €-ko aurrekontu-sail bana aurreikusi da.

Azterlanak, proiektuak eta bestelakoak idaztea

Ohikoa denez, gorago aipatutako inbertsioak gauzatzeak eskatzen du dagozkion egikaritze-proiektuak idazteko behar diren zenbatekoak sartzea inbertsioen

eranskinean. Horri, izaera teoriko nabariagoa duten zenbait plan edo azterlan gehitu behar zaizkio. Hala, jarraian, aurreikusitako zenbatekoak zerrendatzen dira.

Hornidura

* **Hornidura-obretan laneko segurtasuna eta osasuna koordinatzeko laguntza teknikoa**

Laneko segurtasun eta osasunari buruzko indarreko legeriak eskatzen du egingo diren obra guztien segurtasuna eta osasuna koordinatzeko lanen ardura hartuko duten enpresa edo profesionalak izendatzea. Horiek beharrezko gaikuntza izan beharko dute.

Añarbeko Urak erakundearen tamaina kontuan izanda, zeregin horiek kanpora aterako dira eta 25.000 €-ko aurrekontu-zuzkidura ezarri da nahitaezko eginkizun horretarako, zeina hornidura zein saneamenduko obretan aplikatuko baiten.

* **2022-23 proiektu-zorroa**

Ekitaldian zehar, kanpoko ingeniari-entzaile batek egindako proiektu baten beharra izango duen jarduketaren bat gauzatzeko beharra egongo balitz, 25.000 €-ko zuzkidura ezarri da horretarako.

* **Beheko Kanala birgaitzeko alternatibak aztertzea**

Beheko Kanalaren egoerak eragindako arazoak gorabehera, eta Ministerioak Beheko Kanalerako alternatibaren obra interes orokorreko obra izendatu bazuen ere, ezin dugu ahaztu AUSAren azken helburua egungo Beheko Kanala birgaitzea dela, eta birgaitze horretarako lanei ekin behar zaiela haren benetako egoera ikertu ondoren, proiektua idazteari begira alternatiba tekniko eta ekonomiko egokienak zehazteko.

Jarduketa honetarako 100.000 €-ko aurrekontua ezarri da.

* **Hernaniko udalerria urez hornitzeko goi-sistema hobetzea**

Hernaniko Udalak eta AUMAK Hernaniko ur propioak kudeatzeko hitzarmena sinatu ondoren, hitzarmen horretan ezarritako erabakietan deskribatutako obrak egikaritzeko behar diren dokumentu tekniko guztiak idatzi beharko ditu AUSAk.

Jarduketa honetarako 90.000 €-ko aurrekontua ezarri da.

* **Lezoko udalerriko uraren hornidura-sistema hobetzea**

Jarduketa honen xedea da, egun Lezoko Udalak kudeatzen dituen tokiko zenbait hornidura-sistema (Amesti, Monatxo, Elortegi eta Arriandi) Añarbeko sistemaren (Petritegiko EUTEa – Darietako EUBBa) bitartez hornitzeko aukera izateko beharrezkoak diren lanak zehaztea. Jarduketa hau idazteko prozesuan dago eta 2022aren amaiera aldean amaitzea aurreikusi da.

Jarduketa honetarako 73.000 €-ko aurrekontua ezarri da.

* **Santa Barbarako EUBBtik Hernanirako hornidura-sistema optimizatzeko proiektua**

Diru-sarrera jakin batzuk lortzera edo kostuetan aurreztera baldintzatuta zeuden jarduketan artean, lehengo aurrekontuetan jasotako jarduketetako baten xedea zen I. hornidura-adarraren bitartez zuzenean egiten den Hernaniko hiriguneko hornidura hobetzeko aukera baloratzea. Horrela, matxuraren bat egonez gero, Hernanik edateko uraren hornidura berma lezake hornidura-sareko bi adarren bitartez.

Jarduketa honetarako 26.070 €-ko aurrekontua ezarri da.

* **Lastaolako UGPEaren proiektu arkitektonikoa birmoldatzea (Beheko Kanalerako alternatiba)**

Aurreko aurrekontuetan jasotako jardueretako bat Lastaolako EUGParen egokitzapen arkitektonikoa zen, Eusko Jaurlaritzaren Ondare sailak Beheko Kanalerako alternatibako obren ingurumen-inpaktuaren adierazpenean ezarritako baldintzak betetzeko. Funtsean, eraikinaren fatxadak birgaitzea eta egokitzea da helburua, harria agerian utziz eta barruko espazioak egokituz.

Jarduketa honetarako 20.970 €-ko aurrekontua ezarri da.

Saneamendua

* **Saneamendu-obretan laneko segurtasuna eta osasuna koordinatzeko laguntza teknikoa**

Laneko segurtasun eta osasunari buruzko indarreko legeriak eskatzen du egingo diren obra guztien segurtasuna eta osasuna koordinatzeko lanen ardura hartuko duten enpresa edo profesionalak izendatzea. Horiek behar den gaitasuna izango dute.

Añarbeko Urak erakundearen tamaina kontuan izanda, zeregin horiek kanpora aterako dira eta 25.000 €-ko aurrekontu-zuzkidura ezarri da nahitaezko eginkizun horretarako, zeina hornidura zein saneamenduko obretan aplikatuko baiten.

* **2022-2023rako proiektu-zorrotza**

Ekitaldian zehar agerian geratuko balitz jarduketaren baterako beharrezkoa dela alde zuzenetik kanpoko ingeniari-taldeen enpresei eskatzea azterlan teorikoagoak eta egikaritze-proiektuak idatz dezaten, 25.000 €-ko aurrekontua ezarri da horretarako.

* **OIEKUa (gaztelaniaz CUMDRO) egikaritzeko proiektua**

Beste erakunde batzuekin hitzartu beharreko obren artean, Oiartzun ibaiaren eskuinaldeko hiri-kolektorea birmoldatzea dago. Kolektore horri, modu arruntan,

OIEKU deritzo. Aipatutako kolektorea Oiartzun ibaiaren ibilguan dago, bideratze-hormaren ondoan, eta MITECOko Kosta Sailak behin eta berriz jakinarazi du kolektore hori egungo kokalekutik kendu behar dela, itsas-lehorreko zortasun-eremutik kanpo utzita. Horrez gain, Errenteriako Altzateko hirigintza-garapenerako obrak egikarrituko dira. Horretarako, ibaiaren ertzak aldatu nahi dira. Hortaz, AUSA kolektore hori kentzera behartuta dago, horretarako errekerimendua behin eta berriz egin baitzaio.

Kasu honetan, proiektua dagoeneko esleitu da eta 2022ko lehen seihilekoan amaitzea espero da.

2022 honetarako, 88.771 €-ko zuzkidura ezarri da proiektu hau idazteko.

* **Ibaetako HUPEaren bulkada handitzeko proiektua**

Donostiako erdialdean metroa egikaritzeko lanek eragin handia izan dute Donostiako erdialdeko egungo saneamenduaren trazaduran, batez ere Artzain Onaren plazatik gertu dagoen kolektore-sarean —bertan metro-geltokiaren lurgainerako sarbideetako bat egitea aurreikusitako dago—, saneamendu-sarean gaur egungoa baino bihurtune handiagoko eta ahalmen txikiagoko trazadura sortu da. Horrek, 2021ean zehar mugaketa zehaztearekin batera, berekin ekarri du bulkada-kolektore berri bat eraiki behar izatea Ibaetako HUPEko bulkadaren egungo karga-hausturatik, Kontxa hondartzaren inguruan (Bataplán diskoteka), Foruen pasealekuraino. Kolektore horren zatiren bat dagoeneko egikaritzen ari dira.

Kasu honetan, San Martin kalean zehar amaitzeke dauden bulkada horren tartearak zehaztuko ditu proiektuak eta 2022ko bigarren seihilekoan amaitzea aurreikusi da.

2022 honetarako, 45.960 €-ko zuzkidura ezarri da proiektu hau idazteko.

* **Lastaolako sifoiaren aldatzeko edo ezabatze proiektua**

Epeleko HUPEk Fagollaga, Ereñotzu eta Epele auzoetatik datozen ur guztiak biltzen ditu, eta baita ere Urumea ibaiaren arroaren goialdean dauden industrietakoak. Ur horiek Lastaolako sifoiaren sarreraraino bultzatzen dira, non karga hausten duen, eta 315 mm-ko diametroko bi hodiz osatutako sifoi bikoitz baten bidez zeharkatzen dute ibaia. Aipatutako hodiak egoera txarrean daudenez, ezinbestekotzat jotzen da eraikuntza-proiektu bat idaztea, lehendik dagoen hodiaren birgaitzeko edo alboko zubian bermatutako beste bat jartzeko aukerak ebaluatzeko.

Jarduketa honetarako 14.840 €-ko zuzkidura ezarri da 2022rako.

* **Gainezkabideak birmoldatzeko eta deskonexioak egiteko obrak Pasaiko badiaren inguruan: Trintxerpe, Gomistegi eta Bidebieta**

Beste erakunde batzuekin hitzartu beharreko obren artean, Pasaiko badiaren zati baten saneamendua birmoldatzea dago. Funtsean, badiara egiten diren gainezkatzeen kopurua eta bolumena murriztu nahi da, bertako saneamendu-sareak bereiziz eta Trintxerpe inguruan atxikitze-depositu bat eginez, lehenen urak atxikitzeko, horiek baitira benetan karga kutsatzaile handiena daramatenak.

Kasu honetan, proiektua dagoeneko esleitu da eta 2022ko lehen sei hilekoan amaitzea espero da.

10.000 €-ko zuzkidura ezarri da proiektu hau idazteko.

*** Saneamendurako Plan Zuzentzailea**

Beste urte batzuetan bezala, 2.000 €-ko zuzkidura ezarri da 2022rako, AUSAren goi-hornidurako sareko kolektoreak modelizatzeko eta kalibratzeko azterlanak egin daitezten.

Obrak egikaritzeko lurzoruaren kudeaketa

*** Askotariko obrak egiteko lurzoruaren kudeaketa**

AUSAren inbertsioen barruan, ohiko atala da obrak egikaritzeko lurzoria kudeatzera zuzendutakoa. Horrek balio behar du, bai Mankomunitateak eraiki beharreko azpiegiturak hartuko dituzten lurzoruaren jabeei eman beharreko kalte-ordainei erantzuteko, bai, hala badagokio, hori kudeatzeko kontratatutako kanpoko zerbitzu teknikoak ordaintzeko.

10.000 €-ko aurrekontua dago ekintza honetarako.

*** Urnietako hornitzeko lurzoru-kudeaketa**

Urnietako goi-hornidurako tokiko sistemak Añarbera transferitzeko akordioan jasotako konpromisoen barruan, AUSAk akordio horretan aurreikusitako obrak egiteko behar den lurzoruaren zati handi bat kudeatu beharko luke; horien kostua, zati batean, Urnietako Udalari jasanaraziko litzaioke ondoren.

335.547 €-ko aurrekontua dago ekintza honetarako.

*** Beste lurzoru-kudeaketa batzuk**

Taula honetan zehaztutako jarduketak egikaritu ahal izateko 150.800 €-ko aurrekontua egin da lurzoria kudeatzea beharrezkoa balitz ere:

Jarduketa	Zenbatekoa
Lezoko udalerrira hornitzeko sistema hobetzea	50.000
Lezoko udalerrira hornitzeko sistema hobetzea	50.000
ZPLH berria eraikitzea	50.000
Aginaga auzoko saneamendu-obrak	800

7.5.3 Zerbitzuak ustiatzeari lotutako inbertsioak

Hornikuntzako, Saneamenduko, Kalitate Kontroleko eta Administrazioeko arloek egin beharko dituzten inbertsioak dira. Normalean, Proiektu eta Obren Arloari dagozkion inbertsioek (arestian jasoek) baino balio unitario txikiagoa dute.

Zerbitzugintza egokiena bermatzea dute helburu, baita instalazioak (elektromekanikoak eta elektronikoak) berritzea, birgaitzea edo eguneratzea ere, ekipoak zaharkitzea saihesteko (bai katalogotik kanpo geratuko direlako bai beren balio-bizitza amaitu delako). Halaber, laborategiko analisi-aparatuak, ekipo informatiko eta ofimatikoak, ibilgailuak, etab. erostea barne hartzen du.

Datorren ekitaldirako, 2.769.860 €-ko zuzkidura dute guztira (beren xehetasuna jarraian jasota dago).

Hornidura Arloa

Hornidura-azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: EUTE

Guztira 194.500 €-ko zuzkidurarekin, helburu hauetara zuzendutako ekipo eta sistemetan inbertitzea da xedea:

- * **Segurtasunari eta osasunari lotutako jarduketak (10.000 euro), instalazioen segurtasuna hobetzerazuzendutakoak.** Ekintza hauen jatorria ustiategiko langileek antzemandako instalazioen arriskuei edo gabeziei buruzko ebaluazioen berrikuspenean dago. Langile horiek Añarbeko azpiegiturak ustiatu eta mantentzeko zerbitzuen enpresa adjudikaziodunaren segurtasun-batzordeari jakinarazi dizkiote.
- * **Prozesuak kontrolatzeko ekipoak eta sistemak (5.000 €):** Inbertsio hauen bitartez, aurrekontu-sail propioa izateko behar besteko garrantzirik izan gabe, EUTEan egiten diren aldaketa txikiei erantzuten zaie. Horien helburua da zerbitzuaren jarraitutasuna bermatzea eta, bestetik, ekipoak modernizatzea.
- * **EUTEa birmoldatzeko alternatibaren azterketa (14.500 €):** EUTEan dauden tratamendu-sistemak egokiak dira Añarbeko urtegiko ur gordina edangarri bihurtzeko beharrak asetzeko. Azterketa honen bidez analizatu nahi da zer prozesu erabili behar diren ura tratatzeko Urumea ibaitik ur gordinaren hornidura alternatiboaren kasuan, Beheko Kanalaren alternatiba egikaritzearen eta berori zerbitzuan jartzearen ondorioz. Azterketaren helburua da EUTEan egikaritu beharreko egokitzapen-ekintzen zirriborroa egitea, bigarren fase batean dagokion aldaketa-proiektua idatzi ahal izateko.
- * **Instalazioko biltegiaren bypass orokorra birgaitzea (60.000 €):** EUTEaren irteerako banaketa-kutxatilan, bertan dauden sarrerako edo irteerako hodi guztiak dute isolamenduko balbula edo uhatea. Irizpide horren salbuespen bakarra instalazioko biltegiaren bypass-eroanbidea. Eroanbide horrek isolamenduko uhatea du biltegiaren sarreran, baina ez, ordea, irteeran, kutxatilan. Horren ondorioz, ez dago bermatuta eroanbide horretako uraren berrikuntza eta kalitatea. Arazo hori konpontzeko, banaketa-kutxatilan ixteko uhate bat jartzea aurreikusi da, bypass hori

isolatzeko. Osagarri gisa, hodi hori isolatzeko aukera aprobetxatuko da berori birgaitzeko.

- * **Hornidura-uren ahalmen korrosiboari buruzko azterketa (40.000 €):** 2003tik, ura birmineralizatzeako sistema abian jarri zenetik, ur bigunaren izaera zuzentzen ari da urari gatzak gehituta. Izan ere, horrek uraren ezaugarriak oreka-egoera batera —ez gogorra, ez biguna— hurbiltzen laguntzen du. Azterketa honen bidez, uraren korrosibotasunaren analisi xehatua egitea aurreikusten da, kontaktuan dauden materialen arabera urari ematen zaion birmineralizazio-mailarekin, material mota bakoitzerako narriadura-maila aurreikusiz, halakorik balego.
- * **Birmineralizazioa kontrolatzeko armairuetako PLC zaharkituak, karearen lohiak tratatzeko sistema eta erreaktiboak ordezkatzea (50.000 €):** aldian-aldian berritzen dira tratamendu-prozesuaren fase guztiak kontrolatzeko eta eragiteko armairuak. Ordezkatu beharreko ekipoen barruan kontrol-automatak daude (aurrerantzean PLC). PLCak kontrol-ekipo elektronikoak dira, oso azkar eboluzionatzen dutenak. Horren ondorioz, produktu-gamak birjartzeko bermerik gabe geratzen dira, eta, hortaz, eguneratu egin behar dira. Tratamendurako hiru instalaziotan PLCak aldatzea aurreikusi da, haien automatak egunean jartzeko.
- * **Ozonizazio-sistema eta iragazte-sistema hobetzeko proiektua idaztea (15.000 €):** ozonizazio-sistema egokitzeko jarduketak jasoko dituen proiektu bat idaztea aurreikusi da, prozesua hobetzeko, energia aurrezteko eta prozesuaren ordezkotza kritikoak zehazteko. Proiektuak kontuan hartu behar ditu, halaber, iragazte-sisteman egin behar diren hobekuntzak kontrol-sistema eguneratzeko, iragazkiaren maila erregulatzeko eta horiei lotutako eragingailuetarako sartu beharreko hobekuntzak. Proiektu hau oinarritzat erabiliko da tratamenduaren bi faseak hobetzeko etorkizunean egingo diren lizitazioetarako.

Hornidura-azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: sareak

Aurreko atalean zehaztutakoen antzeko xedeak ditu. 261.995 €-ko zenbatekoarekin, honako jarduketa hauen aurrekontua egin da:

- * **Landa-eremuko sarearen muga-puntuetan kutxatilak egikaritzea eta emari-neurgailuak jartzea (84.000 €):** mugako emari-neurgailuak jartzea aurreikusi da, landa-sareen goi- eta behe-hornidurako kudeaketa mugatzen duten muga-puntuetatik igarotzen diren emariak mugatzeko. Horretarako, kutxatilak egikaritu behar dira hodian bertan, emari-neurgailuak kokatu eta irakurketak erraz egin ahal izateko.
- * **Ponpa berriak Usurbilgo EUPERako (50.000 €):** Usurbilgo EUPERak 3 ponpa ditu Larbaingo EUBBaren betetzea kudeatzeko. Ekipo horien balio-bizitza gaintuta dagoen eta funtzionatzen jarraitzen duten arren, horiek ordezte aurreikusi da; horrela, gainera, ponpa berrien dimentsionamendua egungo funtzionamenduirizpideetara egokitzeko. Horri esker, ponpen funtzionamendu-puntua optimizatu ahal izango da, eta, ondorioz, instalazioaren energia-efizientzia hobetu.

- * **Urnietako ur-bilketak erregulatzeko eta hobetzeko obrak (40.000 €):** Urnietako Udalak transferitutako azpiegiturak egokitzeko lanen barruan, ur-bilketak eta horien perimetroko babesak hobetzeko lanak egitea aurreikusi da.
- * **Ponpa berriak Altzako Usurbilgo EUPErako (36.000 €):** Usurbilgo EUPEak 2 ponpa ditu EUBBaren betetzea kudeatzeko. Nahiz ekipo horien balio-bizitza gaindituta egon eta funtzionatzen jarraitu, horiek ordezte aurreikusi da; horrela ponpa berrien dimentsionamendua egungo funtzionamendu-irizpideetara egokitzeko. Horri esker, ponpen funtzionamendu-puntua optimizatu ahal izango da, eta, ondorioz, instalazioaren energia-efizientzia hobetu.
- * **Zenbait instalaziotako lur-harguneak hobetzea (30.000 €):** gaur egun onargarriak diren balio handiagoak dituzten instalazioetako lur-harguneak hobetzea aurreikusi da, instalazioek egoki funtziona dezaten eta, gaintentsioen kasuan, horiek behar bezala ebakatu ahal izateko, instalazioko ekipo elektronikoei eragin gabe. Hobetu nahi diren instalazioak Arranbideko UGPEa, eta Elordin, Zubieta, Lizarratxope eta Armunttoko EUBBak dira.
- * **Beheko Kanalean maila kontrolatzeko sistemaren azterketa (11.995 €):** Beheko Kanalerako kontingentzia-plana egikaritzen aurrera egiteko, etxoletan kanalaren ur-maila neurtzeko sistemak instalatzeko aukera aztertuko da. Horretarako, energia elektrikoaren hornidurarako eta komunikazio-sistemarako irtenbideak bilatu behar dira, datuak denbora errealean bidaltzeko Petritegiko EUTEan dagoen hornidura-sistemaren estazio zentralera. Sistema horri esker, kanalean hausturarik edo luizirik gertatuz gero, gorabehera hori gertatu den tarte detektatu ahal izango da, etxola bakoitzeko emari-mailaren patroia aldatuko delako.
- * **Unitate elektrogenoko gasak ebakutzeko gailua instalatzea Altzako EUPEan (10.000 €):** Altzako EUPEak ez du unitate elektrogeno propiorik, baina bai espazio nahikoa larrialdi elektriko bat gainditzeko instalatzen den unitate mugikorra babestuta geratzeko. Egoera horretan, garrantzitsua da errekontza-gasak ondo ebakutzeko, airea ez kutsatzeko. Aurreikusi da gasak ebakutzeko horma bikoitzeko hodi bat instalatzea, tarte malgu edo mugikor txiki batekin, hodia instalatzen den unitate elektrogenoko gasen ihes-hodiarekin azkar konektatu ahal izateko.

Hornidura-azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: Añarbeko presa

Añarbeko presaren auskultazioa hobetzeari dagokionez, eta inbertsiorik esanguratsuenak azken urteotan egin ondoren, hiru jarduketa planteatu dira ekitaldi honetarako. Horien aurrekontu-zuzkidura, guztira, 75.000 €-koa da. Hona hiru jarduketak:

- * **Ezkerreko hondoko hustubideko hodi behartuaren azpiegituraren analisisa eta hoditeria hobetzeko lanak (75.000 €):** 2015etik Añarbeko presaren hondoko hustubide-sistemak hodi behartuko tarte bat du ezkerreko hustubidean. Aldaketa horri esker, balbula erregulazaile bat instalatu ahal izan da. Balbula horrek ahalbidetzen du gehienez 15.000 l/s-ko emarien hustuketak modulatzeko. Emari handietako hustuketen kasuan, ur-fluxuan perturbazioak sortzen dira hodian, eta horren ondorioz zarata sortzen da eta instalatutako emari-neurgailuak gaizki funtzionatzen du.

Azterketa bat egitea aurreikusi da perturbazio horiek bai materialen korrosioagatik, bai nekeagatik hodian nola eragiten duten ebaluatzeko.

Administrazio Arloa

Administrazio-zerbitzuei lotutako inbertsioak:

*** Enpresa-kudeaketarako *softwarea***

Asmoa da sarrerako eta irteerako dokumentuen erregistroa, eskariak eta fakturazioa, kontabilitatea, instalazioen mantentze-sistema, etab. egoki eta batera kudeatzeko aukera emango duen *softwarea* instalatzea. Jarduketak 104.765 €-ko zuzkidura du.

*** Zibersegurtasun-sistemak aztertu eta hornidura eta saneamendu arloetan ezarri**

Kanpoko sarrera seguruak sortzea ahalbidetu eta hirugarrenen erasoak eragotziko dituzten sistema informatikoak prestatzea da xedea. Jarduketak 50.000 €-ko zuzkidura du.

*** Ekipo informatikoak**

2022ko ekitaldian informatika arloan azal daitezkeen behar berriei erantzuteko zuzkidura 20.000 €-koa da.

*** Azpiegitura sentikorrek babesteko planak egitea eta ezartzea: 15.000 €**

Ekintza honek 15.000 €-ko zuzkidura du, eta EAEko azpiegitura sentikorrek babesteko planaren bigarren zatia garatzera zuzenduta dago.

*** Webgune korporatiboa garatzea**

Gizarte-komunikazio orokorrari, irudi korporatiboari eta informazio-plataformari lotutako helburuak eta betebeharrak betetzeak eskatzen du Añarbeko Urak erakundearen *web*-orria edo ziberorria etengabe hobetzea. 10.000 €-ko aurrekontua ezarri da horretarako.

*** Altzariak, tresnak eta beharrezko beste gauza batzuk erostea**

2022ko ekitaldian 5.000 €-ko zuzkidura ezarri da bulego-altzarietarako, telefono-instalazioetarako, eta airea egokitzeko gailuen, argiteriaren eta abarren eta sozietatearen eraikinetako beste instalazio batzuen handitze edo aldaketa txikiak egiteko behar berriei erantzuteko.

Kalitatea Kontrolatzeko Arloa

Edateko uren laborategirako material eta ekipoak erostea

*** Askotariko ekipoak erostea**

5.000 €-ko zuzkidura ezarri da Petritegi EUTEko edateko uren laborategirako ohikoak eta ezinbestekoak diren tresnak, ekipoak eta gailuak erosteko eta berritzeko.

*** CG-MS eskuratzea**

57.905 €-ko zuzkidura ezarri da Petritegiko EUTEko edateko uren laborategirako gas-masen kromatografo-ekipo bat erosteko eta erdilurrunkorrak erauzteko eta kontzentratzeko sistema automatizatu bat erosteko.

Hondakin-uren laborategirako material eta ekipoak erostea

*** Askotariko ekipoak erostea**

5.000 €-ko zuzkidura ezarri da, Loiolako HUAko hondakin-uren laborategirako ohikoak eta ezinbestekoak diren tresnak, ekipoak eta gailuak erosteko eta berritzeko.

*** Laginak digeritzeko mikrouhin-ekipo bat eskuratzea**

30.000 €-ko zuzkidura ezarri da, Loiolako HUAko hondakin-uren laborategirako laginak digeritzeko mikrouhin-tresneria erosteko.

Saneamendu Arloa

Saneamendu-azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: HUA

Loiola HUAk beharrezkoa du, Añarbeko Urak erakundearen beste instalazioek baino gehiago, bere ekipoak hobetu eta modernizatzea: parametro hidraulikoak, fisiko-kimikoak eta biologikoak prozesatu, kontrolatu eta erregulatzeko gailuak; laneko arriskuen prebentziorako material eta ekipoak; eta abar.

Kontzeptu honetan biltzen dira HUAko uren eta lohien tratamendu-lerroetako hainbat zatitan gailuak berritu eta instalatzea barne hartzen duten jarduketak, guztira 1.395.695 €-koak. Jarduketa horiek bideratuta daude prozesuak hobetzera, betiere instalazioen funtzionamenduan ustiapeneko eta mantentze-lanetako langileen beharra, energia elektrikoaren kontsumoa eta laneko segurtasun eta osasuneko arriskuak ahal den heinean murrizteko helburuarekin.

Jarduketak honako hauek dira:

* **Lehorketa termikoko bahe birakaria ordezkatzea**

Lehortze termikoak konbekzio bidez deshidratatutako lohiaren ura kentzen du. Horri esker, lohiaren bolumena murrizten da eta, ondorioz, garraio-kostuak murrizten dira, konposatuak kontzentratzen dira ondoren balorizatzeko, egonkortu eta pasteurizatu egiten dira. Horrela, produktu maneigarria, patogenorik gabea, etab. lortzen da. Ura bahe birakarian kentzen da.

Urteetan zehar lohia bahe birakaritik igarotzeak azpiegitura-kalteak eragin ditu eta, kalte horiek oraingoz ez badute ere haren funtzionamendua oztopatzen, edozein unetan atzeraezinak bihur daitezke. Bahe birakariaren ordezkatzeko ezaugarri bereko beste bat jartzea da helburua. Jarduketak 750.000 €-ko zuzkidura du.

* **SCADA kudeatzeko plan estrategikoa**

Bai Hornidura arloak bai Saneamendu arloak, datuak eskuratu eta irudikatzeko sistema bat dute, SCADA izenekoa, eta bi arloak osatzen dituzten instalazio guztiak biltzen ditu. Denboran zehar, arlo bakoitzak SCADA bat garatu du bakarlanean arituz, baliozko sistemak garatuz, baina elkarren arteko loturarik gabe, eta zaila da bi sistemek eskuratutako datu guztiak erraz erabiltzeko moduko sistema komun batera esportatzea. Bi arloetarako proiektu komuna garatu nahi da, erabilerraza izango dena eta Añarbeko Urak erakundearen ustiapen- eta zuzendaritza-arloen irizpide eta beharretara egokituko dena. Jarduketarako 167.020 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

* **Lodigailuen eragingailuak ordezkatzea**

Loiolako HUAK grabitateko hiru lodigailu ditu, 18 m-ko diametrokoak, eta 2005ean jarri ziren zerbitzuan. Bakoitzak lohiak ekartzeko zubi bat dauka, DAGA markakoa. Ekipo horien eragingailuak etengabe matxuratzen dira horien dimentsionamendu okerragatik eta lodigailuaren barruan sortzen den giroagatik. Hiru lodigailuetako eragingailuen ordezkatzeko buru eragingailu estanko olioztatuak jartzea proposatzen da, egungo egoerarako dimentsionatuta. Jarduketarako 90.000 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

* **Dekantazioko lohi-mailaren neurgailuak**

Loiolako HUAK 5.000 m³-ko zortzi dekantagailu ditu. Bertan, lohi biologikoa dekantatzen eta ura argitzen da. Ur hori, azkenean, lehorreko eta itsaspeko hustubideen bidez itsasoratzen da. Gaur egun, 8 dekantagailuetako bakoitzean dagoen lohi biologikoaren mantua egiaztatzeko, pertika bat erabiltzen da. Horren bidez, dekantagailuan dagoen lohi biologikoaren altuera eskuz zehazten da. Neurtzen den parametro hori oso garrantzitsua da HUAK ondo funtzionatzen duela egiaztatzeko. Lohi-mantuaren maila eskuz neurtzean eta bildutako datuak datu-basera eramatean akatsik egon ez dadin, proposatzen da lohi-mantuaren maila etengabe neurtzeko gailu bat instalatzea, instalazioko SCADArekin konektatuta, dagoen datu-basean bildutako datuak erregistratzen. Jarduketarako 66.000 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

* **Iriste-obran errektiboaren biltegiak handitzeko obra**

Iriste-obraren usaina kentzeko prozesuan egun erabiltzen diren soda- eta hipoklorito-biltegien ordezkatzeko ahalmen handiagoko biltegiak instalatzea da helburua, horrela errektibo

gehiago izateko eraginkortasun eta segurtasun handiagoarekin lan egin ahal izateko. Jarduketarako 60.000 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

* **Lehorketa termikoko errota ordezkatzea**

Loiolako HUaren lehorketa termikoan, bahe birakaritik ateratzen den lohi lehorra ehotzeko balio duen ekipo bat dago, behar baino handiagoa. Lohi lehorra ehotzearen eta haren ezaugarrien ondorioz, errotaren azpiegitura eta barruko zatiak gehiegi higatu dira. Egungo errotaren ordezkari berri bat jartzea proposatzen da, urradurarekiko erresistenteagoa izango den material batekin eraikia. Gainera, bide batez, leherketa-arriskua izan dezaketen eremuei buruzko ATEX araudira egokituko den errota bat ezarriko da haren ordezkari. Jarduketarako 55.000 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

* **Dekantagailuen eta lodigailuaren simulazio hidraulikoko azterketak**

Loiolako HUak arazo asko ditu hondakin-uren tratamenduari buruzko 91/271/EEE zuzentaraua betetzeko, haren diseinu eskasa dela eta. Proposatzen da dekantagailuen eta lodigailuen simulazio hidraulikoari buruzko azterketa bat egitea, fluido konputazionalen dinamika-tekniken bidez, hondakin-urak HUako sistemetan zer portaera duen zehatz-mehatz jakiteko, eta oso arazo espezifikoak aztertu eta detektatu ahal izateko. Jarduketarako 52.000 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

* **HUako AHIBEP digestorea**

Loiolako HUAn hiru digestore daude lohien lerroan. Horietako bi martxan daude eta hirugarrena erreserba gisa dago. Urtean behin, horietako bat hustu eta azterketa sakona egiten da, berrikusi eta konpontzen da, horman eta kupulan egon daitezkeen arrakalak garbitzen dira, hodiak telebista-kamerarekin ikuskatu, higatutako hodiak konpondu, etab. Jarduketarako 45.000 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

* **Loiolako HUako dokumentazio elektrikoa “EPLAN”en digitalizatzea (2. Fasea)**

Loiolako HUako dokumentazio elektrikoa paperean dago eskuragarri. Egiten diren aldaketa guztiak eskuz jaso behar dira dagoen dokumentuan, eta horrek akatsak egitea eta, batzuetan, informazioa galtzea dakar. Asmoa da HUAn dauden plano elektriko guztiak formatu digitalera bihurtzea, zehazki, “EPLAN” izeneko software espezifiko batera: plano elektrikoak egitera bideratutako marrazketa-programa informatiko bat. Jarduketarako 30.000 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

* **Loiolako HUako biologikoaren funtzionamenduari buruzko azterketak**

Loiolako HUak arazo asko ditu hondakin-uren tratamenduari buruzko 91/271/EEE zuzentaraua betetzeko, haren diseinu eskasa dela eta. Proposatzen da itsas uraren intrusioaren eta populazio mikrobiologikoaren gaineko diluzioaren artean dagoen korrelazioari buruzko azterketa bat egitea, eta erreaktore biologikoetako difusoreen errendimendua kuantifikatzea, OFFGAS tekniken bidez; horrela, oso arazo espezifikoak analizatu eta detektatu ahal izateko. Jarduketarako 30.000 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

* **HUAn azaleratzen diren kutsatzaileen eta mikroplastikoen presentziari eta horiek ezabatzeari buruzko azterketa analitikoa**

Hondakin-uretan agertzen diren kutsatzaileak eta mikroplastikoak gero eta gehiago ugaritzen ari direnez, eta ohiko araztegiak horiek ezabatzeko gai ote diren kezka dagoenez, azterketa analitiko bat egitea proposatzen da, HUAko efluentean agertzen diren kutsatzaileek eta mikroplastikoek duten presentzia eta horiek deuseztatzeko errendimendua zehazteko. Jarduketarako 20.000 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

* **Biltegitratze-siloetarako hautsa xurgatzeko sistema bat hornitzea eta instalatzea**

Loiolako HUAren lehorketa termikoa ATEX instalazio gisa sailkatuta dago, hautsa dela eta. Saiatu behar da ez dadin hautsik pilatu, ez gainazaletan, ez esekiduran, edozein su-iturrik eragindako deflagrazioak saihesteko. Lohi lehorra biltegitratze-siloetan sartzen denean, hauts-lainoak sortzen dira barruan, eta gero horiek dekantatu egiten dira. Kamioietan lohi lehorra deskargatzeko garaian, hauts hori airean esekita geratzen da berriro eta deflagratzeko arriskua du. Hautsa xurgatzeko sistema bat instalatzea proposatzen da, biltegitratze-siloetan hautsa kentzeko eta prozesura eramateko, kamioiak kargatzean arriskurik egon ez dadin. Jarduketarako 18.675 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

* **HUAko zenbait eraikinetako konfinamenduari, fokalizazioari eta desodorizazioari buruzko azterketak**

Loiolako HUAk lau desodorizazio-sistema ditu. Horien bidez, HUAko eremu jakin batzuetan airea kimikoki tratatu eta araztu egiten da, hura atmosferan usainik gabe askatzeko. Tratamendu hori garestia da, erreaktiboetako eta energiako gastua dela eta. Proposatzen da lau desodorizazio-sistemak optimizatuko dituen eta desodorizazio-errendimenduei eutsiko dien azterketa bat egitea, energia eta erreaktiboak aurrezteko. Jarduketarako 12.000 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

Saneamendu-azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: sareak

Saneamendu-sareek beharrezkoa dute, Añarbeko Urak erakundearen beste instalazioek baino gehiago, bere ekipoak etengabe hobetu eta eguneratzea: parametro hidraulikoak prozesatu, kontrolatu eta erregulatzeko gailuak; laneko arriskuen prebentziorako material eta ekipoak; eta abar.

Kontzeptu honetan (guztira 540.000 €-ko zuzkidura izango duena), hainbat jarduketa biltzen dira, besteak beste, zenbait HUPEtan gailuak berritzea eta instalatzea, betiere ustiapeneko eta mantentze-lanetako langileen eta energia elektrikoaren kontsumoaren beharra ahalik eta gehien murrizteko helburuarekin. Horrek berekin ekarriko du, orobat, instalazioetan jardutean laneko segurtasun eta osasuneko arriskuak murriztea.

Jarduketak honako hauek dira:

* **Santa Katalinako HUPEa hobetzeko obrak**

Santa Katalinako HUPEa 1997an eraiki zen, eta ordutik aldaketa txikiak egin dira bai instalazioan, bai koadro elektrikoetan, hura behar berrietara eta indarreko araudietara egokitzeko. Kontuan hartuta Santa Katalinako HUPEa saneamendu-sistemaren instalazio garrantzitsuenetako bat dela, hura osorik birgaitzea eta haren erdi-tentsioko eta behe-tentsioko kaxak aldatzea proposatzen da, instalazioa modernizatzeko eta energetikoki optimizatzeko. Jarduketarako 345.000 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

* **Saneamendu-sareetan itsas intrusioa murrizteko neurriak ezartzea**

Gaur egun, Añarbeko Urak-eko langileak laginketa-kanpaina bat egiten ari dira goi-hornidurako kolektoreen sarean, itsas intrusioa sareko zein puntutan dagoen identifikatzeko. Kanpaina horren emaitzetatik aterako dira arazoa konpontzen lagunduko duten zenbait jarduera. Jarduketarako 100.000 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

* **Itsas uraren intrusioari buruzko azterketa monitorizazio bidez**

Añarbeko Urak egiten ari den laginketa-kanpainarekin batera, saneamendu-sareetan itsas uraren intrusioari dagokionez, enpresa espezializatu bat kontratatzea proposatzen da, itsas uraren intrusioari buruzko aholkularitza jasotzeko, analisi-sistema informatiko baten euskarriaz. Sistema informatiko horrek kolektore-sistemaren eredu matematiko bat eta sarean instalatutako instrumentaziotik datorren informazioa konbinatuko ditu. Jarduketarako 65.000 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

* **Laneko segurtasun eta osasunerako ekipa eta sistemak**

Langileen segurtasuna areagotzea da helburua, babes kolektiboko ekipamenduak eta sistemak aldatuz. Jarduketarako 30.000 €-ko zuzkidura ezarri da.

7.6. Sarrera jakin batzuk gauzatzearen edo kostuetan aurreztearen mende dauden inbertsioak

Aurreko guztiaz gain, nabarmendu behar da, jakina denez, ekitaldi bakoitzean zehar inbertsioen exekuzioa aldaketa batzuen mende dagoela ezinbestean. Izan ere, jakina da obrak esleitzeko prozesuetan beherapenak izaten direla, orokorrean, haiek adjudikatzeko aurrekontuan, lizitazio-prozesura aurkezten diren enpresen arteko lehiaren ondorioz. Beherapen horien zenbatekoa egoera ekonomiko orokorraren eta, bereziki, obra publikoaren eta eraikuntzaren merkatuaren arabera aldatzen da eta zenbateko esanguratsuko aurrezpenak dakartzate —Mankomunitatearen izenean AUSAk egiten dituen obren likidazioa ia beti oso neurritzkoa izaten da, edo adjudikazio-aurrekontuaren behetik geratzen da—.

Halaber, inbertsioen aurrekontua garatu eta gauzatzean jarduketetakoren batek hasieran kalkulaturako irismen tekniko eta ekonomikoa baino txikiagoa izan dezake; eta, zenbaitetan, ez da beharrezkoak izaten hura gauzatzea. Horrek, nola ez, xede horretarako aurreikusitako baliabide ekonomikoak zati batean edo osorik askatzen ditu.

Baina egia da ere kontrakoa gerta daitekeela, hau da, jarduketaren baterako edo batzuetarako kalkulaturako zenbatekoak nahikoak ez direla, izan ere, ezinezkoa baita haien benetako irismena zein den jakitea dagokion egikaritze-proiektua egin aurretik. Eta oso gutxitan gertatu bada ere, obraren bat adjudikazio-aurrekontuaren gainetik dagoen prezioan likida daiteke, egikaritze-proiektua idazteko unean duten garrantzia zehaztasun osoz aurreikustea zailak diren gorabehera batzuen ondorioz ere —oro har, lursailaren izaeragatik eta eraginpeko zerbitzuak berrezartzeagatik—.

Horrenbestez, komeni da, egikaritu ahal izateko, diru-sarrera zehatz batzuk gauzatzearen edo goian adierazitako kostu-aurrezpenaren mende dauden inbertsioei buruzko epigrafe bat sartzea:

Inbertsioak	Zenbatekoa (BEZa kanpo)
1. Saneamendu-kolektore handietarako sarbideak egokitzea	150.000
2. Loiolako HUA handitzea	5.000.000
3. Santa Barbarako EUBBtik Hernanirako hornidura-sistema optimizatzea	2.000.000
4. Darietako EUBBtik Lezoko udalerrirako hornidura indartzea	80.000
5. Loiolako HUAko tratamendu biologikoko putzuak estaltzea	2.200.000
6. Urumea ibaiaren arroko jarduketak Añarbeko presaren kudeaketa hobetzeko	100.000
7. Itsas uraren intrusioa kentzea	500.000
8. Lurreko hustubidea birgaitzeko eta hobetzeko alternatibak aztertzea	60.000
9. Ibaetako HUPetik Santa Katalinako HUPerako bulkada-hodia zabaltzea	600.000
10. Petritegiko EUTEko kontrol-eraikina zabaltzea	1.000.000
11. Petritegiko EUTetik AUSAko datu-sarera zuntz optikoa konektatzea	140.000
12. Behe-kanalerako Kontingentzia Plana egitea – 2. fasea	250.000
13. Loiolako HUAko desodorizazioak aldatzea	300.000
14. Loiolako HUAko kontrol-eraikinaren fatxada birgaitzea	300.000
15. Gainezkabideen ekipamendua araudi berri batera egokitzea	1.000.000
16. Hiri-kolektorea Oiartzun ibaiaren eskuinaldean	1.500.000
17. Donostiako udalerrian Antigua auzoaren saneamendua amaitzea	3.000.000
18. Hernaniko udalerria urez hornitzeko sistema hobetzea	400.000
19. Gurutzeko HUAren arazketa-sistema hobetzea - 3. fasea	125.000
20. Santa Katalinako HUPean ponpa berria jartzea	225.000
21. Anoeta ibarraren saneamendu-proiektua idaztea – 2. fasea	100.000
22. Anoetako ibarraren saneamendu-obra egikaritzea - 2. fasea	2.000.000
23. Altzate-Erreterria eremuan, Darietako EUBBa hornitzeko hodia aldatzea	350.000
24. Saneamendu-mugaketaren ondoriozko jarduketak	500.000
25. Añarbeko presako kontrol-eraikina hobetzeko proiektua eta obrak	250.000
26. Beheko Kanalerako alternatiba egikaritzea	25.000.000
27. Beheko Kanala birgaitzea	1.000.000
28. ZPLH berria eraikitzea (*)	16.000.000
29. HUA handitzea	1.000.000
30. Desodorizazio kimikoak biologiko transformatzea - 1. fasea	500.000

(*) Papelera Guipuzcoana Zicuñagak finantzatuko luke jarduketa

C) Aurrekontu bateratua

Añarbeko Uren Mankomunitatea eta Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, SA

SARREREN EGOERA-ORRI BATERATUA					
Kapitulu a	Izena	AUMA	Sozietatea	Doikuntza k	Bateratua
3	Tasak eta bestelako sarrerak	10.001	20.358.203	(1)	20.368.203
5	Ondare-sarrerak	-	1.162.226	-	1.162.226
7	Kapital-transferentziak	-	672.340	-	672.340
8	Finantza-aktiboak	-	1.638.930	-	1.638.930
9	Finantza-pasiboak	-	1.895.551	-	1.895.551
Sarrerren egoera-orria guztira		10.001	25.727.250	(1)	25.737.250

GASTUEN EGOERA-ORRI BATERATUA					
Kapitulu a	Izena	AUMA	Sozietatea	Doikuntza k	Bateratua
1	Langile-gastuak	-	2.425.300	-	2.425.300
2	Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	10.001	13.558.548	(1)	13.568.548
3	Finantza-gastuak	-	18.874	-	18.874
6	Inbertsio errealak	-	9.404.978	-	9.404.978
9	Finantza-pasiboak	-	319.550	-	319.550
Gastuen egoera-orria guztira		10.001	25.727.250	(1)	25.737.250

D) AUSAren aurreikusitako kontuak

2022ko abenduaren 31rako aurreikusitako balantzea

AKTIBOA		PASIBOA	
AKTIBO EZ-KORRONTEA		ONDARE GARBIA	
Ibilgetu ukiezina	1.546.410	Funts propioak	
Ibilgetu materiala	197.012.741	Kapital harpidetua	3.649.000
Higiezinetao inbertsioak	0	Erreserbak	84.157.847
Taldeko enpresen inbertsioak epe luzera	3.645.066	Ekitaldiko emaitza	2.523.678
Aktibo ez-korrontea guztira	202.204.217	Funts propioak guztira	90.330.526
		Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	108.531.518
AKTIBO KORRONTEA		Ondare garbia guztira	198.862.043
Izakinak	89.033		
Zordun komertzialak eta kobratzeko dauden bestelako kontuak		PASIBO EZ-KORRONTEA	
Salmenten eta zerbitzugintzen ondoriozko bezeroak	3.394.746	Epe luzerako zorrak	3.104.249
Zenbait zordun	81.752	Pasibo ez-korrontea guztira	3.104.249
Zordunak guztira	3.476.498		
Epe laburrerako periodifikazioak	134.937	PASIBO KORRONTEA	
Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	3.530.508	Epe laburrerako zorrak	2.678.484
Aktibo korrontea guztira	7.230.976	Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko bestelako kontuak	
		Hornitzaileak	2.468.638
		Zenbait hartzekodun	2.048.211
		Administrazio publikoekiko bestelako zorrak	273.568
		Hartzekodunak guztira	4.790.417
		Pasibo korrontea guztira	7.468.901
AKTIBOA GUZTIRA	209.435.193	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA	209.435.193

2022ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagokion aurreikusitako galera-irabazien kontua

A) ERAGIKETA JARRAITUAK	
1. Negozio-zifraren zenbateko garbia	20.093.421
a) Salmentak	550.105
b) Zerbitzugintzak	19.543.316
4. Hornikuntzak	(7.405.915)
b) Lehengaien eta bestelako materia kontsumigarrien kontsumoa	(2.139.913)
c) Beste enpresa batzuek egindako lanak	(5.266.002)
5. Ustiapeneko bestelako sarrerak	327.008
a) Sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko bestelakoak	327.008
6. Langile-gastuak	(2.425.300)
a) Soldatak, ordainsariak eta antzekoak	(1.911.947)
b) Karga sozialak	(513.353)
7. Ustiapeneko bestelako gastuak	(6.144.633)
a) Kanpoko zerbitzuak	(5.614.818)
b) Tributuak	(529.815)
8. Ibilgetuaren amortizazioa	(8.506.268)
9. Ibilgetu ez-finantzarioko dirulaguntzen eta bestelakoen egozpena	5.512.240
A.1) USTIAPEN-EMAITZA	1.450.553
13. Finantza-sarrerak	1.100.000
b) Balore negoziagarrienak eta bestelako finantza-tresnenak	1.100.000
b2) Hirugarrenenak	1.100.000
14. Finantza-gastuak	(18.875)
b) Hirugarrenekiko zorren ondoriozkoak	(18.875)
A.2) FINANTZA-EMAITZA	1.081.125
A.3) ZERGEN AURREKO EMAITZA	2.531.678
17. Mozkinen gaineko zerga	(8.000)
A.4) ERAGIKETA JARRAITUETATIK DATORREN EKITALDIKO EMAITZA	2.523.678
A.5) EKITALDIKO EMAITZA	2.523.678

Aurreko egoera-orrian azaltzen den emaitza ekonomikoak erakusten du magnitude horren aurreikuspena 2022ko urteko kontuetan. Aipatu beharra dago, ordea, ikus daitekeenez, emaitza horretan kapitaleko dirulaguntzen eta banatu beharreko bestelako sarreraren intsuldaketa jasota dagoela, guztira 5.512 mila €-ko zenbatekoaz.

Honela, zerbitzugintzaren ondoriozko guztizko gastuak —zerbitzuaren erabiltzaileek erabiltzen duten azpiegitura osoaren amortizazio teknikoaren barne, haien finantzaketaren jatorria kontuan hartu gabe (funts propioak, zorpetzea, dirulaguntzak edo lagapenak)— oinarrizko zerbitzugintzaren eta beste jarduera osagarri batzuen ondorioz jasotzen diren sarrerak baino 2.988 mila € handiagoak dira.

2022ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagokion aurreikusitako ondarean izandako aldaketen egoera-orria

2022ko ekitaldiari dagozkion aitortutako sarrera eta gastuen egoera-orriak

Kontzeptua	2022
A) Galera-irabazien kontuaren emaitza	2.523.678
Ondare garbiari zuzenean egotzitako sarrerak eta gastuak	
III. Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	672.340
B) Ondare garbiari zuzenean egotzitako sarrerak eta gastuak guztira	672.340
Transferentziak galera-irabazien kontura	
VIII. Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	(5.512.240)
C) Transferentziak galera-irabazien kontura guztira	(5.512.240)
AITORTUTAKO SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA	(2.316.222)

2022ko ekitaldiari dagokion ondare garbian izandako aldaketen egoera-orria guztira

	Kapital eskrituratua	Erreserbak	Ekitaldiko emaitza	Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	Guztira
A) 2020ko amaierako saldoa	3.649.000	79.686.371	2.614.028	118.526.153	204.475.552
B) 2021eko hasierako saldo doitua	3.649.000	79.686.371	2.614.028	118.526.153	204.475.552
I. Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	1.857.448	357.505	2.214.953
III. Ondare garbiaren bestelako aldakuntzak	-	2.614.028	(2.614.028)	(5.512.240)	(5.512.240)
C) 2021eko amaierako saldoa	3.649.000	82.300.399	1.857.448	113.371.418	201.178.265
D) 2022ko hasierako saldo doitua	3.649.000	82.300.399	1.857.448	113.371.418	201.178.265
I. Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	2.523.678	672.340	3.196.018
III. Ondare garbiaren bestelako aldakuntzak	-	1.857.448	(1.857.448)	(5.512.240)	(5.512.240)
E) 2022ko amaierako saldoa	3.649.000	84.157.847	2.523.678	108.531.518	198.862.043

E) GECASaren behin-behineko aurrekontua eta kontuak

Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, SA sozietateak % 70eko partaidetza du Gestión de Centrales del Añarbe, SA (aurrerantzean GECASA) sozietatearen kapital sozialean. Sozietate honen xedea da minizentral hidroelektrikoak, kogenerazio-instalazioak, biomasaren energia-aprobetxamendukoak, eguzki-energiakoak eta bestelako energiakoak sustatu, eraiki, birmoldatu eta hornitzea, bai produkzio elektrikorako, bai produkzio termiko edo mekanikorako, kontsumo propiora edo salmentara bideratuta.

2003. urtean, Sozietatearen partaidetza GECASAn horren kapital sozialaren % 2,44tik % 70era igo zen, Añarbe II zentral hidroelektrikoaren ekarpenari eta Sozietatearen beste bazkidea den Energiaren Euskal Erakundearen % 5 eskuratzeari esker.

Gaur egun, energia elektriko hidroelektrikoa produzitzeko GECASARI eman zaizkion ustiapen-emakidak Añarbe I zentrala (Añarbeko presaren oinean dagoen zentrala) eta Añarbe II zentrala (Goizuetako udalerrian dagoena) izenekoei dagozkie.

Gainera, Sozietateak Loiolako HUAn energiaren kogeneraziorako bi zentral ditu: batek gas naturala erabiltzen duten hiru motor ditu (1.416 kW-ko potentzia unitarioa dute); besteak, berriz, hondakin-urak arazteko prozesutik sortutako biogasa erabiltzen duten bi motor ditu (805 kW-ko potentzia unitarioa dute).

Azkenik, aipatzekoa da zortzi eguzki-zentral fotovoltaiko kudeatzen dituela. Horietatik zazpi 5 kW-ko potentzia izendatua dute eta AUSARI erosi zizkion. Zortzigarrenak, berriz, 70 kW-ko potentzia izendatua du eta Oriabentako edateko ura banatzeko biltegiaren gainean instalatu zuen GECASAK.

GECASaren 2022rako behin-behineko kontuak eta horien bihurketa GECASaren aurrekontu-arloko sarrera eta gastuen aurreikuspenetan —non arestian deskribatutako zentralen ustiapenetik sortzen diren eragiketak kontuan hartzen diren—, honako hauek dira:

GECASaren aurrekontuaren laburpena kapituluka:

Kapitulua	Sarrerren egoera-orria	Euro
3	Tasak eta bestelako sarrerak	5.572.809
8	Finantza-aktiboak	963.786
Sarrerren egoera-orria guztira		6.536.595

Kapitulua	Gastuen egoera-orria	Euro
1	Langile-gastuak	66.446
2	Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	3.998.970
6	Inbertsio errealak	899.750
8	Finantza-aktiboak	1.571.429
Gastuen egoera-orria guztira		6.536.595

GECASaren aurrekontuaren xehetasuna kontu-sailka:

SARREREN EGOERA-ORRIA		
Kontu-saila	Izena	Euro
343.01	Energia elektrikoaren salmenta – ZH 1	573.750
343.02	Energia elektrikoaren salmenta – ZH 2	382.500
343.03	Energia elektrikoaren salmenta – Kogenerazioa	3.573.388
343.06	Energia elektrikoaren salmenta - Fotovoltaikoa	55.294
343.04	Energia termikoaren salmenta	987.877
III. kapitulua guztira		5.572.809
880.01	Aurrekontua berdintzeko eragiketak	963.786
VIII. kapitulua guztira		963.786
Sarrerren egoera-orria guztira		6.536.595

GASTUEN EGOERA-ORRIA		
Kontu-saila	Izena	Euro
130.01	Langile lan-kontratudunak	48.864
160.01	Gizarte Segurantzako kuotak eta Geroa	17.582
I. kapitulua guztira		66.446
201.01	Alokairuak	7.160
201.02	Alokairuak – Kogenerazioa	24.621
210.01	Konponketa, mantentze-lanak eta kontserbazioa – ZH 1	5.000
210.02	Konponketa, mantentze-lanak eta kontserbazioa – ZH 2	25.000
210.03	Konponketa, mantentze-lanak eta kontserbazioa – Kogenerazioa	397.367
210.04	Konponketa, mantentze-lanak eta kontserbazioa – Fotovoltaikoak	2.120
221.01	Energia elektrikoa – ZH 1	616
221.02	Energia elektrikoa – ZH 2	782
221.03	Energia elektrikoa – Kogenerazioa	29.298
221.04	Energia elektrikoa – Beste zenbait	932
221.05	Gas naturala - Kogenerazioa	1.875.909
221.06	Biogasa - Kogenerazioa	550.105
224.01	Ibilgetuaren aseguru-primak – ZH 1	6.120
224.02	Ibilgetuaren aseguru-primak – ZH 2	13.404
224.03	Ibilgetuaren aseguru-primak - Kogenerazioa	18.131
224.04	Ibilgetuaren aseguru-primak - Fotovoltaikoak	2.637
225.01	Bestelako tributuak – ZH 1	2.300
225.02	Bestelako tributuak – ZH 2	1.004
225.03	Bestelako tributuak – Kogenerazioa	12.252
225.04	Bestelako tributuak – Fotovoltaikoak	850

GASTUEN EGOERA-ORRIA		
225.05	Konfederazio Hidrografikoaren kanona – ZH 1	214.182
225.06	Ur kontinentalak erabiltzearen ondoriozko kanona – ZH 1	11.705
225.07	Ur kontinentalak erabiltzearen ondoriozko kanona – ZH 2	7.803
225.08	Energia elektrikoa ekoiztearen gaineko zerga – ZH 1	40.163
225.09	Energia elektrikoa ekoiztearen gaineko zerga – ZH 2	26.775
225.10	Energia elektrikoa ekoiztearen gaineko zerga – Kogenerazioa	202.393
225.11	Energia elektrikoa ekoiztearen gaineko zerga – Fotovoltaikoak	3.871
225.99	Sozietateen gaineko zerga	410.726
226.99	Hainbat gastu – ZH 1	4.211
226.99	Hainbat gastu – ZH 2	3.221
226.99	Askotariko gastuak – ZHak	10.000
226.99	Askotariko gastuak - Kogenerazioa	41.228
226.99	Askotariko gastuak - Fotovoltaikoak	409
226.99	Askotariko gastuak	20.000
227.01	Beste enpresa batzuek egindako lanak – ZH 1	1.680
227.02	Beste enpresa batzuek egindako lanak – ZH 2	3.480
227.03	Beste enpresa batzuek egindako lanak - Kogenerazioa	8.315
227.99	Beste enpresa batzuek egindako lanak	13.200
II. kapitulua guztira		3.998.970
623.01	ZH II: 1. multzoko turbinaren errodetea ordezkatzeta	59.750
623.02	ZH II: 3. multzoko guardia-balbula (tximeleta-balbula) eta 2. multzoko turbinaren bypassa aldatzea eta automatizatzea	75.000
623.03	KOGE: Motorren hoztea hobetzeko kogenerazio-jarduketak	175.000
623.04	KOGE: Biogaseko lerroan hezetasun-kengailu bat instalatzea	85.000
623.05	EZF: Zentral fotovoltaiko berri bat instalatzea	500.000
623.06	Laneko arriskuen prebentziorako jarduketak	5.000

GASTUEN EGOERA-ORRIA		
VI. kapitulua guztira		899.750
872.90	Gainerako ekarpenak (dibidenduak)	1.571.429
VIII. kapitulua guztira		1.571.429
Gastuen egoera-orria guztira		6.536.595

2022ko abenduaren 31rako aurreikusitako GECASaren balantzea

AKTIBOA		PASIBOA	
AKTIBO EZ-KORRONTEA		ONDARE GARBIA	
Ibilgetu materiala	2.850.197	Funts propioak	
AKTIBO EZ-KORRONTEA GUZTIRA	2.850.197	Kapital harpidetua	1.812.802
		Jaulkipen-prima	1.962.077
AKTIBO KORRONTEA		Erreserbak	362.560
Zordun komertzialak eta kobratzeko		Ekitaldiko emaitza	1.300.633
Salmenten eta zerbitzugintzen	1.114.562	Funts propioak guztira	5.438.072
ondoriozko bezeroak		Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta	27.501
Zordunak guztira	1.114.562	legatuak	
Eskudirua eta bestelako aktibo likido	2.622.454	ONDARE GARBIA GUZTIRA	5.465.573
AKTIBO KORRONTEA GUZTIRA	3.737.016	PASIBO EZ-KORRONTEA	
		Geroratuko zergaren ondoriozko pasiboak	8.683
		PASIBO EZ-KORRONTEA GUZTIRA	8.683
		PASIBO KORRONTEA	
		Epe laburrerako zorrak	0
		Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko bestelako	
		Hornitzaileak	598.041
		Ogasun publikoa, sozietateen gaineko	410.726
		zergaren ondoriozko hartzekodun	
		Administrazio publikoekiko bestelako	104.190
		Hartzekodunak guztira	1.112.957
		PASIBO KORRONTEA GUZTIRA	1.112.957
AKTIBOA GUZTIRA	6.587.213	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	6.587.213

2022rako aurreikusitako GECASaren galera-irabazien kontua

A) ERAGIKETA JARRAITUAK	
1. Negozio-zifraren zenbateko garbia	5.572.809
a) Salmentak	5.572.809
6. Langile-gastuak	(66.446)
a) Soldatak, ordainsariak eta antzekoak	(48.864)
b) Karga sozialak	(17.582)
7. Ustiapeneko bestelako gastuak	(3.588.244)
a) Kanpoko zerbitzuak	(3.064.948)
b) Tributuak	(523.296)
8. Ibilgetuaren amortizazioa	(214.450)
9. Ibilgetu ez-finantzarioko dirulaguntzen eta bestelako en egozpena	7.690
A.1) USTIAPEN-EMAITZA	1.711.359
13. Finantza-sarrerak	0
14. Finantza-gastuak	0
A.2) FINANTZA-EMAITZA	0
A.3) ZERGEN AURREKO EMAITZA	1.711.359
17. Mozkinen gaineko zerga	(410.726)
A.4) ERAGIKETA JARRAITUETATIK DATORREN EKITALDIKO EMAITZA	1.300.633
A.5) EKITALDIKO EMAITZA	1.300.633

2022ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagokion aurreikusitako GECASaren ondarean izandako aldaketen egoera-orria

2022ko ekitaldiari dagozkion aitortutako sarrera eta gastuen egoera-orriak

Kontzeptua	2022
A) Galera-irabazien kontuaren emaitza	1.300.633
Ondare garbiari zuzenean egotzitako sarrerak eta gastuak	
B) Ondare garbiari zuzenean egotzitako sarrerak eta gastuak guztira	1.300.633
Transferentziak galera-irabazien kontura	
VIII. Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	(5.844)
IX. Zerga-ondorioa	(1.846)
C) Transferentziak galera-irabazien kontura guztira	(7.690)
AITORTUTAKO SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA	1.292.943

2022ko ekitaldiari dagokion ondare garbian izandako aldaketen egoera-orria guztira

	Kapital eskrituratua	Jaulkipen-primaria	Erreserbak	Ekitaldiko emaitza	Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	Guztira
A) 2020ko amaierako saldoa	1.812.802	2.438.667	464.703	268.643	39.189	5.024.004
B) 2021eko hasierako saldo doituia	1.812.802	2.438.667	464.703	268.643	39.189	5.024.004
I. Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	-	1.438.339	(5.844)	1.432.495
II. Eragiketak bazkide edo jabeekin						
4. (-) Dibidenduen banaketa	-	(343.500)	(102.143)	(268.643)	-	(714.286)
III. Ondare garbiaren bestelako aldakuntzak	-	-	-	-	-	-
C) 2021eko amaierako saldoa	1.812.802	2.095.167	362.560	1.438.339	33.345	5.742.213
D) 2022ko hasierako saldo doituia	1.812.802	2.095.167	362.560	1.438.339	33.345	5.742.213
I. Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	-	1.300.633	(5.844)	1.294.789
II. Eragiketak bazkide edo jabeekin						
4. (-) Dibidenduen banaketa	-	(133.090)	-	(1.438.339)	-	(1.571.429)
III. Ondare garbiaren bestelako aldakuntzak	-	-	-	-	-	-
E) 2022ko amaierako saldoa	1.812.802	1.962.077	362.560	1.300.633	27.501	5.465.573

F) Maileguen egoera

2022ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiaren hasierarako eta itxierarako aurreikusitako zorpetzea

2022ko urtarrilaren 1erako aurreikusitako egoera

AUSA

Erakundea	Birfinantzaketa edo formalizazioa	Zenbatekoa (€-tan)	Interes-tasa	Saldo bizia (€-tan)	Erabili gabea	Muga-eguna
Kutxabank	2007/12/26	995.000	Euribor + % 0,10	81.678	-	2022/12/26
Kutxabank	2008/12/17	725.000	Euribor + % 0,70	116.026	-	2023/12/17
Bankia	2006/12/20	1.000.000	Euribor + % 0,08	0	-	2021/12/20
Caixabank	2008/12/19	725.000	Euribor + % 0,70	130.503	-	2023/12/31
Caja Rural Navarra	2009/07/29	860.000	Euribor + % 0,90	198.423	-	2024/07/29
Bankinter	2013/12/18	1.022.856	Euribor + % 1,85	101.632	-	2023/12/18
Caja Rural Navarra	2020/12/20	1.226.942	Euribor + % 0,685	1.226.942	-	2035/12/20
AUSAren saldoa guztira 2022ko urtarrilaren 1ean				1.855.204	-	

GECASA

Erakundea	Birfinantzaketa edo formalizazioa	Zenbatekoa (€-tan)	Interes-tasa	Saldo bizia (€-tan)	Erabili gabea	Muga-eguna
GECASAREN saldoa guztira 2022ko urtarrilaren 1ean				0	-	

2022ko abenduaren 31rako aurreikusitako egoera

AUSA

Erakundea	Birfinantzaketa edo formalizazioa	Zenbatekoa	Interes-tasa	Saldo bizia	Erabili gabea	Muga-eguna
Kutxabank	2007/12/26	995.000	Euribor + % 0,10	0	-	2022/12/26
Kutxabank	2008/12/17	725.000	Euribor + % 0,70	58.058	-	2023/12/17
Bankia	2006/12/20	1.000.000	Euribor + % 0,08	0	-	2021/12/20
Caixabank	2008/12/19	725.000	Euribor + % 0,70	72.558	-	2023/12/31
Caja Rural Navarra	2009/07/29	860.000	Euribor + % 0,90	126.836	-	2024/07/29
Bankinter	2013/12/18	1.022.856	Euribor + % 1,85	51.260	-	2023/12/18
Caja Rural Navarra	2020/12/20	1.226.942	Euribor + % 0,685	1.226.942		2035/12/20
Mailegu berria 2022	Finkatzeke	1.895.551		1.895.551		
AUSAren saldoa guztira 2022ko abenduaren 31n				3.431.205	-	

GECASA

Erakundea	Birfinantzaketa edo formalizazioa	Zenbatekoa (€-tan)	Interes-tasa	Saldo bizia (€-tan)	Erabili gabea	Muga-eguna
GECASaren saldoa guztira 2022ko abenduaren 31n				0	-	

G) Zorpetzearen eranskina

Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, SA sozietateak 2022ko abenduaren 31n izango duen zorraren aurreikuspena, aurreko tauletan azaldu den xehetasunen arabera, 3.431.205 €-koa da.

Zorpetze-mailari dagokionez, haren erregulazioa Gipuzkoako Toki Ogasunen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 51. artikuluan eta hurrengoetan jasota dago.

Aipatutako arauaren 53. artikuluan xedatzen den prozeduran oinarrituz, ondoren Sozietatearen zorpetze-maila xehatzen da, kontuan hartuta maila hori lortzen dela, batetik, indarrean dauden kreditu-eragiketen ondoriozko finantza-karga ordaintzera bideratzen diren kopuruen eta, bestetik, eragiketa arrunten ondoriozko sarreren arteko zatiduratik.

2021eko ekitaldirako eragiketa arrunten ondoriozko sarreren likidazio-aurreikuspena 19.293.194 €-koa da. Formalizatuta dauden eta 2022an formalizatuko diren kreditu-eragiketengatik urte horretan ordaindu beharreko finantza-karga teorikoa 533.997 €-koa izango dela aurreikusten da.

Azaldu denaren arabera, ondorioztatzen da Sozietatean aurreikusitako legezko zorpetze-maila, 2022ko ekitaldirako, % 2,77koa dela.

III. AURREKONTU OROKORRA GAUZATZEKO ARAUA

1. artikulua

Aurrekontua onartu, kudeatu eta likidatzeko, toki-erakundeei aplikatu beharreko aurrekontu-araudian eta aurrekontua gauzatzeko arau honetan xedatutakora egokitu beharko da. Aurrekontuaren indarraldi bera izango du arau honek. Hori dela eta, aurrekontua luzatuz gero, arau hau ere indarrean egongo da aldi horretan.

2. artikulua

Arau hau Aurrekontu Orokorra gauzatzeko eta garatzeko aplikatuko da. Hortaz, aplikatzekoa izango da, oro har, Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, SA sozietatearen aurrekontua gauzatzeko ere.

3. artikulua

Ekitaldirako Aurrekontu Orokorra Mankomunitatearen beraren eta haren Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, SA sozietatearen aurrekontuek osatzen dute. Horietan, aipatutako erakundeei aitortzea aurreikusten duten betebeharren adierazpen zifratu eta sistematikoa jasotzen da (Mankomunitatearen kasuan, izaera mugatzailearekin), baita ekitaldian zehar likidatzea aurreikusten duten eskubideena ere. Zehazki, honako hauek dira bakoitzaren zenbatekoak (eurotan adierazita):

Erakundea	Gastuen egoera-orriak	Sarrerren egoera-orriak	Baliabide arruntak
Mankomunitatea	10.001	10.001	10.001
AUSA	25.727.250	25.727.250	21.520.429

4. artikulua

Mankomunitatearen gastu propioen aurrekontuko "Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak" izeneko 2. kapituluaren lotura juridikoa kapitulu-mailakoa izango dela finkatzen da.

5. artikulua

Gehieneko berme- eta zorpetze-mailak Aurrekontu Orokorra osatzen duten 2022rako aurrekontuetako sarrerren egoera-orrietan jasotako baliabide arrunten zenbateko osoan finkatzen dira.

6. artikulua

Mankomunitatearen gastuen aurrekontuko honako kontu-sail hau zabaldu egin daiteke, hari esleitutako finantzaketaren arabera:

KREDITU ZABALGARRIA

Kontu-saila	Izena	Hasiera ko zenbatekoa (€-tan)
227.99	Kanpoko beste lan batzuk	1

FINANTZAKETA

Kontu-saila	Izena	Hasierako zenbatekoa (€-tan)
399.01	Azpiegiturak finantzatzeko sarrerak	1

Eskubide handiagoak aitortzearen arabera zabaldu daitekeen kreditua kredituak gaitzeko erregimenaren bidez finantzatuko da.

7. artikulua

Mankomunitateko Presidentetzari dagokio kreditu osagarriak onartzea, baldin eta Aurrekontu Orokor Bateratuaren %5 gainditzen ez badute eta diruzaintzako gerakinarekin finantzatzen badira.

8. artikulua

Mankomunitateko Presidentetza izango da zergapekoak ez diren ondare-prestazio publikoen ondoriozko sarreraren likidazioen subjektu pasiboek aurkez ditzaketen errekurtsioak ebazteko organo eskuduna.